



ttiipi-ttapa

Lekaroz | Urtarrilak 16



Nafarroako sagardotegi denboraldia Larraldean irekiko dute → 28

2015eko urtarrilaren 8a | XXXV. urtea | 629. zenbakia

www.ttipi.eus

Kirola

2014ko erreparasoa → 36-37

BERA → 11

VIII. Mendiaren Eguna urtarrilaren 10ean

ARESO → 25

Etxebizitzak eskatzeko epea luzatu dute

BAZTAN → 27

Baztango Bertso Eskolak bortz urte bete ditu

SENPERE → 31

Eliza monumentu historiko izendatu dute

Hondakin organikoen kudeaketa



ERREPORTAJEA → 4-5

Hondakinak ongarrri bihurtuak

ZOKKETAK → 44


Zabor guttiago sortzea da egin daitekeen lehen-dabiziko gauza. Baina behin sortuta, aterabidea bilatu behar zaio eta hondakin organikoekin, adibidez, gure eskualdean konposta izan da egindako aukera. Urteak urtera gero eta gehiago dira etxean sortzen duten hondakin organikoekin

konposta egiten dutenak. TTIPI-TTAParen Hego Euskal Herriko eremuan, 1.886 familiek egiten dute etxeko konposta eta bertze 979k auzokoa. Bortzirietan %31,91k egiten du konposta, Baztanen %28,18k, Malerreka eta Bertizaranan %21,75ek eta Leitzaldean %15,64k.



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58ra**

Eneritz REKARTE eta Itsaso ALCALDE | Anixe Elkarte



«Jaiotzen garenetik gure gain espero diren espektatibak ikasten ditugu»

Sexu berdineko jendea eredutzat hartu eta haiek egiten dituzten jokaera berdinak errepikatzen ditugula diote Anixe Elkarte bi kideek. Hala, generoaren betaurrekoak jartzeko gonbitea luzatu dute.

ELKARRIZKETA → 3

URDAZUBI → 30

Fabaren Erregearen besta urtarrilaren 10ean

Iruñeko Muthiko Alaiak elkartearen ekimenez, Nafarroako erregeen tradiziozko Fabako Erregearen besta Urdazubik hartuko du larunbat honetan. Jokin Etxart herriko gaztetxea izanen da Fabaren Erregea. Egitarauaren barne, pregoia, dantzariak, joaldunak, desfilea eta koroatze ekitaldia izanen dituzte.









LUR GARAGARDOTEGIA

DJ NASH // LUR DJOTAK  TXUPITO BAT DEBALDE SARRERAREKIN

10 URTARRILA 9€
_00:00 *Kontsumizioa 03:00ak arte*

TORRENTE 5 // OPERACIÓN EUROVEGAS

11 URTARRILA 5€
_18:00

KRISIAREN AURKAKO GAUA

17 URTARRILA DEBALDE 02:30ak arte
_00:00 *Hortik aurrera 6€*

HAURRENDAKO ZINEA

EL CORAZÓN DEL ROBLE +MUSIKA 20.00ak ARTE

18 URTARRILA 5€
_18:00

ENDARA DJ'S

24 URTARRILA 9€
_00:00 *Kontsumizioa 03:00ak arte*

DEMOMODE QUARTET

31 URTARRILA 12€
_19:30

* MUS TXIMISTAN Apuntatzeko: 696791059 / 667259261




Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net

berako agenda

ilbeltza

5 astelehena ERREGE KABALGATA
15:30 • Erregeen pajeak herriko karriketan barna ibiliko dira gutunak biltzen
18:30 • Errege Kabalgata
Ibilbidea: Itzea auzotik Herriko Etxeko plazara

10 larunbata VIII. SANTA BARBARARA IGOERA
Eskalada tailerra, ibilaldi gidatua Santa Barbarara, haurrentzako lasterketak, binakako kronoigoera

12 astelehena SOLASALDIA: "Haziera kontzientea. Gure seme-alabak maitasunez eta errespetuz hezten" (Miren Camison)
18:00 • Beralandetan

23 ortzirala HAURRENDAKO IPUIN KONTALARIA
KONTALARIA
18:00 • Herri Liurutegian

14 asteartea MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIAK
BIOLIN entzunaldia
18:00 • Musika Eskolan

20 asteartea PERKUSIO entzunaldia
18:00 • Musika Eskolan

21 asteazkena GITARRA entzunaldia
18:00 • Musika Eskolan

27 asteartea HAIZE INSTRUMENTUEN entzunaldia
17:30 • Musika Eskolan

28 asteazkena TXISTU entzunaldia
18:00 • Musika Eskolan

31 larunbata BERA KANTARI
19:00 • Illeketatik hasita




Kulturartekotasuna, generoa, familia eredu berriak... Gisa honetako gai sozialak jorratzeko asmoz sortu dute Eneritz Rekarte eta Itsaso Alcaldek Anixe Elkarte. Lesaka eta

Berako bi gazte hauek «gogo eta ilusio haundiz» paratu dute martxan egitasmoa, gaian hutsune handia dagoela iritzita. Azaldu digutenez, gai aunitz landu nahi

dituzte, baina orain, batez ere hurrekin genero berdintasunaz ari nahi dute. Horren baitan, tailerrak, hitzaldiak, dokumentalak... eskaini nahi dituzte.

Eneritz REKARTE eta Itsaso ALCALDE | Anixe Elkarte

«Prozesu sexista baten bidez neska ala mutila nola izan irakasten digute»

G. PIKABEA | BERA/LESAKA

Zein da Anixe Elkartearen helburu nagusia?

Zonaldean ikusi dugun hutsune handi bat betetzea da gure helburua, batik bat, gai sozialak jorratuz. Eskualdeko jendearengana hurbildu nahi dugu, haur, gazte zein helduengana.

3-16 urte bitarteko haurrentzako genero berdintasuna lantzeko tailerrak antolatuko dituzue. Azaldu...

Hau lantzen pasatu dugu denbora gehiena. Eskualdean hutsune nabarmena dagoela somatu genuen, ez zegoela gai hau lantzeko aukera aunitz. Haurren artean ere handitzen ari da mutilen eta nesken arteko ezberdintasuna. Gurasoek ere kezka hau azaldu digute eta tailerrak antolatzeko martxan jarri gara. Tailerrak adinaren arabera banatuko ditugu, lehenengo Haur Hezkuntzako haurrak, Lehen Hezkuntzan hiru talde eginen ditugu eta azkenik DBHko taldea. Haur eta Lehen Hezkuntzan gai berak landuko ditugu, baina zailtasun maila ezberdinarekin. Landuko ditugun gaien artean, kirola, lanbideak, etxeko lanak, jolasak, arropa... izanen dira. Tailerrak dinamikoak izanen dira jolas, antzerki, eskulanean... bitartez eginen ditugunak. DBHn, ordea, pil-pilean dauden eta hurbileko



UTZITAKO ARGAZKIA

Anixe Elkarteko Itsaso Alcalde eta Eneritz Rekarte.

gaiak landuko ditugu, hala nola, ikasketen aukeraketa, genero indarkeria, mikromatxismoak, telesailak, kasu praktikoak, musika, biodeoklipak, iragarkiak, berdintasun planak... ikusiko ditugu. **Nola ikusten duzue genero berdintasunaren gaia eskualdeko haurren artean?**

Landu beharreko erronka moduan. Kontzientzia falta handia dago, gizartean bertan arrotza da gai hau.

Zein dira haurrak berdintasunean hezteko oinarrizko gakoak?

Pertsona guztioi, jendarteratze prozesu sexista baten bidez, neska ala mutila nola izan irakas-

EGIN BEHAR EZ DENA

«Hainbat espresio hagitz barneratuak ditugu. **Nenaza bezalako espresioak edonon eta noiznahi entzun ditzakegu eta normalizatuak ditugu. Horrelako jarrerak behin eta berriz sortzen dira, diskurtsoaren gibeletik dagoenari erreparatu gabe».**

HUTSUNE HANDIA

«Genero berdintasunaren gaian kontzientzia falta handia dago gure eskualdeko haurren artean, gizartean bertan gaia arrotza da».

ten digute. Jaiotzen garenetik gure gain espero diren espektatibak ikasten ditugu. Gure sexu berdina daukan jendea eredutzat hartzen dugu eta haiek egiten dituzten jokaera berdina errepetitzen ditugu. Hezkidetzaren jendarte sisteman partekidetasuna lortzeko aukera da, gure sexu eta generotik at hezteko aukera, pertsona bakoitza gure banakotasun eta berezitasunekin heztea. Gaur egungo irizpide sexistak jarraitu gabe, gure sexuari egokituak rola, baloreak, portaerak... kontuan hartu gabe heztea. Pertsona autonomoak izatea, gure bizitza proiektuen jabe izanda,

hurbileko inguruarekin elkarbizitzan egotea eta behar ditugun gaitasunak garatzea da helburua. Eskubide berdintasunaren ideologian oinarritzen da, askatasuna, ezberdintasuna eta elkartasuna gaituz.

Zer ez da egin behar?

Nahiko toleranteak gara. Hainbat espresio hagitz barneratuak ditugu. **Nenaza** bezalako espresioak edonon eta noiznahi entzun ditzakegu eta normalizatuak ditugu. Horrelako jarrerak behin eta berriz sortzen dira, diskurtsoaren gibeletik dagoenari erreparatu gabe. **Zuek nola landu nahi duzue genero berdintasuna?**

Zorixarrez, jendarte sexista batean sozializatzen ari gara eta haur zein gazteei bertze eredu bat eskaini nahi diegu. Horretarako, ezinbertzeak da modu kontziente batean egitea. Berez atzeratzen zaiguna, inongo filtrorik gabe, ez delako hezitzailea. Hortaz, generoaren betaurrekoak jartzera gonbidatu nahi dugu, errealitatea bertze modu batera aztertzea. Gure egitasmoan euskarak duen garrantzia ere azpimarratu nahiko genuke. Material gehiena gaztelaniaz eta ingelesez dago eta hau dena euskaratzeko lana hartu dugu, tailerrak, hitzaldiak... euskaraz eskaini ahal izateko.

GIZARTEA → HONDAKIN ORGANIKOEN KUDEAKETA ESQUALDEAN

la lautik batek egiten du konposta

TTIPI-TTAPAK hartzen duen Hegoaldeko eremuan 2.865 familiek egiten dute konposta

2009an banatu zituzten lehenbiziko konpostontziak. Bortziriak eta Mendialdea izan ziren aitzindariak, eta ondotik hasi ziren Baztanen,

Malerrekan eta Bertizaranan. Gaur egun, 1.886 familia dira etxeko konposta egiten dutenak eta 979 auzokoa egiten dutenak.

G. PIKABEA

Guztira 2.865 familia dira Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Arano, Areso, Goizueta, Leitza eta Malerrekan hondakin organikoekin konposta egiten dutenak: 1.886 familia etxeko konposta egiten dutenak eta 979 auzokoa egiten dutenak. Bertzela erranda, ia lautik batek egiten du konposta. Azken bozpasei urteotako emaitzak dira, tarte horretan paratu baitute martxan konpostajea esqualdean, lehenbizi etxekoa eta gero auzokoa. Izan ere, materia organikoa murrizteko bidean, Baztango Udala eta Malerreka, Bortziriak eta Mendialdeko Mankomunitateen arabera, legediak finkatutako helburuak lortzeko sistemarik egokiena konposta egitea da.

ARAUDIAK

• **Europako 2008/98 Zuzentarauarekin** eman ziren lehen urratsak materia organikoaren gaien. Biohondakinen inguruko definizioa ere bildu zuen: *lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarria; etxe, jatetxe zein kontsumo-establezimenduetan sortzen den sukaldeko hondakina; eta janaria transformatzen den fabriketan sortzen den antzeko hondakina*. Araudi honek dio biohondakinak

berezita bildu eta tratatu behar direla, eta biohondakinetatik sortutako materialei erabilera segurua eman behar zaiela ingurumenari dagokionez.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia ere zehazten du, jarraitzeko ordena hau dela erranez: hondakinak tratatzeko lehen urratsa prebentzioa edo hondakin guttiago sortzea dela ageri da. Bigarrena berrerabilteza, hirugarrena birziklapena, laugarrena bertze balorizazio-mota bat, adibidez, balorizazio energetikoa eta azken aukera gisa deuseztatzea ageri da.

• **Estatu espainiarreko Hondakinen eta Kutsatutako Lurzoruen 22/2011 Legearen** helburua hondakinen kudeaketa erregulatzea da, hondakin guttiago sortzeko neurriak bultzatuz eta hondakinak kudeatzerakoan giza osasunaren eta ingurumenaren aurkako inpaktuak arinduz. 2020rako papera, metalak, beira, plastikoa, biohondaki-

Biohondakinen bilketa berezia eta hauen tratamendua ere ageri dira, baita etxeko eta auzoko konpostajea ere.

• **Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak** mankomunitateek bete beharreko zenbait helburu zehazten ditu: hondakinen sorreraren prebentzioa xedea nagusitatzeko ezartzeko neurriak hartzeaz ari da, baita berrerabilpena eta etxeko eta auzoko konposta egiteko ekintzak bultzatzeaz ere, hala, egun sortzen diren hondakinen %10 murriztea lortuko delakoan. Gisa berean, 2020rako 2011n sortutako biohondakinen erdia berezita bildu beharko dela dio planak, eta desegokiak diren hondakinak gehienez %10 izan beharko dutela.



nak edo birziklagarriak diren hondakinen kopuruak guttienez pisuko %50era ailegatu behar duela aipatzen du legeak.

KONPOSTA EGITEN DUTEN FAMILIAK

BAZTAN	Etxeko konposta	Auzoko konposta
Almandoz	12	0
Amaiur	34	7
Aniz	24	0
Arizkun	69	0
Arraioz	32	18
Azpilkueta	16	0
Berroeta	31	0
Elbete	26	9
Elizondo	136	156
Erratzu	44	28
Gartzain	22	0
Irurita	48	38
Lekaroz	37	6
Oronoz-Mugairi	30	3
Ziga	19	0
GUZTIRA familiak	580 familia	265 familia

MENDIALDEA	Etxeko konposta	Auzoko konposta
Arano	15	0
Areso	17	0
Goizueta	37	42
Leitza	113	117
GUZTIRA familiak	182 familia	159 familia

MALER./BERTIZ.	Etxeko konposta	Auzoko konposta
Beintza-Labaien	18	0
Donamaria	69	0
Doneztebe	77	59
Elgorriaga	34	0
Eratsun	20	0
Ezkurra	13	0
Ituren	58	3
Legasa	28	3
Narbate	32	0
Oieregi	10	0
Oiz	27	0
Saldias	8	0
Sunbilla	60	19
Urroz	26	0
Zubieta	44	3
GUZTIRA familiak	524 familia	87 familia

BORTZIRIAK	Etxeko konposta	Auzoko konposta
Arantza	57	7
Bera	208	237
Etxalar	76	0
Igantzi	95	1
Lesaka	164	223
GUZTIRA familiak	600 familia	468 familia

KONPOSTAJEA BAZTAN, MALERREKA, BERTIZARANA, BORTZIRIAK ETA MENDIALDEAN

Baztandarren %28k konposta egiten du etxeko hondakin organikoekin



2010ean eman zituzten konposta egiteko lehen urratsak Baztanen. Urte hartan konpostagailu batzuk eskatu eta 2011n 20 banatu zituzten. Geroztik, ugaritu egin dira. 2012an, adibidez, 149 konpostagailu banatu zituzten, 2013an 54 eta 2014an 356. Jendearen eskaerari erantzunez, auzoko konpostarekin hasi ziren: 2013an hiru proiektu pilotu paratu zituzten Elizondoko Baztan Berri eta Paularena auzoetan eta Arraiozen. Horrez gain, Anizko herritarren ia %100ak etxeko konpostan parte hartzea lortu zuten. Egun, baztandarren %28,17k egiten du konposta. Miren Meoki teknikariak argi du «konposta gure zonaldean gai organikoa kudeatzeko sistemarik egokiena dela, hondakin kudeaketa eta tratamendua gero eta konplikatuagoa den honetan, tratamenduak deszentralizatuz eta zikloa bertan itxiz denok irabazten dugu». Baztandarren artean konpostak duen harrera «arras ona» dela dio: «martxan diren puntuak ez dute arazorik eman, eta astero izen-emate berriak izaten ditugu. Ez da seinale txarra!».

Herritarren ia %32k egiten du konposta Bortzirietan



Etxeko konpostarako lehen ontziak 2009an banatu zituzten Bortzirietan eta auzoko konpostarekin 2012an hasi ziren. Urteik urtera, «gero eta jende gehiago animatzen ari dela» dio Txomin Elgorriaga teknikariak. Gainera, aurten auzoko konpostarekin «pausu handia» eman dutela aipatu digu. Datuak dira emaitzen lekuko: biztanleriaren %31,91k egiten du konposta, 600 familiak etxeko konposta eta 468k auzokoa. Teknikariak kontatu digunez, «hasieran jendeak beldur pixka bat bazuen, ez zekielako zer zen eta arazoak izanen zirela uste zuelako. Baina orain, ongi eginda ez dagoela arazorik ikusi dute eta jendea animatzen ari da». Kontrakoak eta parte hartzen ez dutenak ere omen dira, baina bere irudiko, «jendeak ongi hartu du. Zerbait egin behar dela ulertu du, eta konposta egitea eroso eta erraza dela ikusi du». Ondoko urteetan, konpostagailu gehiago banatu nahi dituzte, eta oroitarazi digu, «%30ak konposta egitea lortu bada ere, horrek %70ak ez duela parte hartzen erran nahi duela».

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan %15,64k egiten du konposta



2009an paratu zuten etxeko konpostajea martxan Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan, eta herri hauekin batera, Mendialdea Mankomunitatearen barne dauden Larraun eta Lekunberrin ere bai. Urte hartan sei herrietan 52 konpostagailu banatu zituzten, horietatik 3 Aranon, 4 Areson, 9 Goizuetan eta 21 Leitzan. Bortz urte berandua go, sei herrietan 278 familia dira etxeko konpostagailua dutenak, horietatik 182 Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan. 2013ko azaroan Leitzan auzoko konpostajeari ere hasi ziren. Geroztik, Goizuetara ere zabaldua da zerbitzua eta gaur egun, bi herrietan 159 familia dira auzoko konpostan parte hartzen dutenak. Aranon herritarren %17,24k egiten du konposta, Areson %11,56k, Goizuetan %18,33k eta Leitzan %15,18k. Bakartxo Huizi Mendialdea Mankomunitateko arduradunak adierazi digunez, «jendearen aldetik oso harrera ona» izaten ari dira: «oraingoz helburuak betetzen hasi gara, baina aurrerago ez balira beteko, behartzen bukatu beharko dugu».

%15 igo da Bertizarana eta Malerrekan konposta egiten dutenen kopurua



2011n banatu zituen lehenbiziko konpostagailuak Malerrekan Mankomunitateak, baina bereziki aurten egin du gora erabiltzaile kopuruak. Miren Mangado hondakin teknikariak azaldu digunez, egun, Malerreka eta Bertizaranako biztanleriaren %21,75ek egiten du konposta, eta aitzineko hiru urteetan %6,60 ziren. Aipatzekoa da, aurten hasi direla auzoko konposta egiten. Zubieta eta Ituren izan dira horretan lehenak eta hango martxa ikusirik, bertze herrietan zabaltzen hasi dira. Gaur egun, etxez-etxe 524 konpostagailu banatuak dituzte eta auzoko konposta 87 familiak egiten dute. Jendearen erantzuna, beraz, «baikorra» dela dio Mangadok. Etorkizunari begira, «erabiltzaile kopuruak igotzen segitzen badu eta modu honetan lanean segitzen badugu, finkatu dizkiguten helburuak lortzeko bidean izanen garela» uste du. Baina garbi du «jendeak bere partetik esfortzua egin behar duela, gure kanpainetan parte hartu behar du denen artean helburuak lortzeko».



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Kordak eta txirikordak

Lazoak loturen lagun dira. Mutur bat eta bes-tea koreografia erritmiko bezain sutilean murgiltzen direnean, konturatu orduko, lotura ezarria izaten da. Baina lazoak, korapiloaren arabera noski, aska daitezke. Batzuetan azkarregi askatzen dira; eta beste batzuetan, kosta egiten da askatzea. Badaude askatzerako orduan min egiten dutenak, konturatu gabe barruan hutsunea uzten dituztenak; baina badaude ito ere egiten dutenak. Lazopak, beraz, gertutik jarraitu beharrekoak dira. Beti ere, komenigarria izaten da zinta mota aukeratzea: kolorea, tamaina, sendotasuna. Baina garrantzitsuena mutur batekin lotuko duen hori aukeratzea da. Eta ez ahaztu, aspaldiko lazoak errebisatzeaz, batzuk askatzea beharra izaten baitute, beste batzuek indartsuago lotzekoa izaten duten modu berean.

«Batzuetan azkarregi askatzen dira eta beste batzuetan kosta egiten da askatzea»


Ezpala

Aitor AROTZENA

Zalantza esistentzialak

Urte berriari ekin diogu, bizitza aitzinera doa eta mundua mugiarazten duten galderei erantzun gabe segitzen dugu: Nola sartu kotxean euria ari duenean, guardasola itxi eta busti gabe? Zer egin behar da patata tortilla egiten ari garenean zartagiari buelta eman eta arraultze batittu zorrota ez erortzeko? Facebooken hainbat lagun izanik, zergatik ez dugu inor topatzen kafe bat hartzeko?

Nabarmentzekoak



Blanca BAÑARES
Zilarrezko Titarea

Santa Luzia egunean Doneztebeko Udalak eskaintzen duen Zilarrezko Titarea jaso zuen 62 urteko jostunak. Jostuntza erakusten ere aritzen da Donezteben eta Iturenen astean bitan.



Jokin ETXART
Fabaren Errege izanen da

Larunbatean izendatuko dute Fabaren Errege, Urdazubin eginen diren ospakizunetan. Abenduaren 13ko ospakizunean, Urdazubiko 10 neska-mutikoren artean berari egokitu zitzaion baba.



Mikel RODRIGUEZ
Lesakako kazetaria

Aratz. Begiradaren atzetik bere lehen eleberria aurkeztu du idazle lesakarrak. Gaumin argialetxeak argitaratu du Berriako kazetari eta TTIPI-TTAPAKO kolaboratzailearen lana.

Atzera begira →
2005-I-13 /
TTIPI-TTAPA 389 zk.



Pedro Esarte historia ofizialaren itxuraldatzeari aurre eginez

Vasconia en el siglo XII: De Reino de Pamplona a Reino de Navarra liburua argitarara eman zuen duela hamar urte Pedro Esarte Muniain historialari elizondarrrak, historia ofizialaren itxuraldatzeari aurre egiteko asmoz. «Bizian ilusioaren bat izan behar da eta nere ilusioa gauzak argitara ematea da. (...) Lanean segituko dut, egiazko historiaren eta historia ofizialaren artean dagoen haustura salatzen» zioen. Horregatik, Nafarroako agintariak baztertutako egilea zen: «Beti topatu izan naiz goikoaren egiarekin, agintzen duenaren egiarekin eta Platonen erraten zuen bezala, *Justizia agintzen duenaren arma da*».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Erredakzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Greben zenbakiak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

A benduaren 4an greba egin zuten Osakidetza langile batzuek eta ohikoa den bezala, antolatzaileek ehuneko batzuk eman zituzten jarraitzaileei buruz eta Osakidetza arduradunek, ordea, beste ehuneko batzuk; lehenengoek zenbaki handi samarrak eta bigarrenak, aldiz, zenbaki dezente txikiagoak. Esan bezala, zenbaki dantza hau ohikoa izaten da, zoritxarrez, grebetan, manifestazioetan, elkarretaratzeetan, lanuzteetan, agerraldietan eta abar. Nik aitortzen dut, halako balorazio ezberdintasun gehiegizko horiek, dagoeneko nazkatu eta aspertu samarturik naukatela, izan ere, ezinezkoa baita bi aldeek arrazoia edukitzea, zeren eta azken batean hor gertaera objektibo bakar bat izan baita, eta badakigu matematikak kasu horietan ez duela gezurrik esaten. Hala eta guztiz ere, behin eta berriro, greba, kale agerraldi, e.a. dagoen bakoitzean, jasan behar izaten ditugu eten gabe, halako estimazio eta balorazio ezberdinak. Gezurra ematen du gertakari berbera zeinen ezberdin ikusten den.

Egia esan, neronek pentsatzen dut, gehienetan behintzat, segur aski sindikatuen eta antolatzaileen estimazioak eta balorazioak, zuzenagoak eta egokiagoak izanen direla besteenak baino, baina, jakina, horixe nik ezin dut frogatu. Are gehiago, neronek esanen nuke zenbaki aldatze hori, norbaitek nahita egin duela bere onurarako, gauzak nahasteko.

Galderak hauexek izaten dira: nork dauka arrazoia? Nor ari da gezurretan? Nor hurbiltzen da gehiago egia? Nor dabil gezurretik gertuago? Nor ari da asmo txarrez jokatzeko? Eta abar.

Ez dakit seguru, baina egia esatera, pentsatzen dut sindikatuek eta abarrek, lan pixka bat hartuko balute, frogatu ahalko luketela nork dioen egia eta nor ari den bazterrak nahasten, alegia, greba bat egin denean, oker ez banago, langile grebalariei soldata des-

kontatzen zaie, legeak dionean arabera. Bada, hilaren bukaeran, iruditzen zait ez dela oso zaila izan behar sindikatuetak arduradunentzat, jakitea zenbat langileri, hau da, zenbat grebalariri deskontatu dieten soldata, grebak eta lanuzteak egiteagatik. Nahiz eta datu horiek berandutxo iritsi, hots, hilaren bukaeran, pentsatzen dut oso onuragarria izanen litzatekeela, behin eta berriz frogatzea nor ari diren egia esaten eta nor gezurra, nortzuek daukaten arrazoia eta nortzuek ez, nor ari diren zuzen jokatzeko eta nor modu zikinean.

Benetan, uste dut mereziko lukeela agerian uztea gizarte osoaren aurrean, nor ari diren asmo txarrez eta nor ez, argitze hori berandu samar iritsiko balitz ere. Behin eta berriz, hamaika aldiz, behin eta berriro, mihi aldiz, aldi guztietan.

«Gezurra ematen du gertakari berbera zeinen ezberdin ikusten den»

Elkarrekin indartsuago: kohesiorako bide bat Pirinioetako bi aldeetan artean

Maitte ITURRE LLANO (Udalbiltzako lehendakariordea)

XXI. mendearen hasieran, egitura sozial eta ekonomikoari dagokionez, Euskal Herria gaitasun handiko herrialdea izanik ere, desberdintasun handiak daude oraindik eskualdeen artean. Mendeetan zehar, mendekotasunean oinarritutako politika desegokien ondorioz, desoreka handiak sortu dira Hegoaldearen eta Iparraldearen artean, kostaldearen eta barnealdearen artean, herrien eta hirien artean, eskualdeen eta probintzien artean.

Udalbiltzaren helburua desoreka horiek murriztea eta, jakina, Euskal Herriko eskualde guztien garapen harmoniko eta orekatuagoa bultzatzea da. Helburu hori lortzeko, gure herriaren errealitatearen berri izatea da lehenbiziko pausoa, eta, horretarako, gure lurra osotasunean aztertzekeo tresnak behar ditugu. Arlo horretan ezinbesteko lana egiten du Gai-degiak, adibidez.

Euskal Herria aztertzekeo tresna propioak izanik, diagnostiko bat egin dezakegu. Udalbiltzak egin zuen, eta, Euskal Herriko eskualdeen hogeita hamar bat adierazle ebaluatu eta gero, Pirinioak garatzeko programa bat abian jartzeko erabakia hartu genuen: “Euskal Pirinioetan lan eta bizi”. (...). 18 hilabete eman ditugu lanean Pirinioetan: dozenaka bilerak egin dira instituzioekin, garapenerako eragileekin, ekintzaileekin eta gizarte zibilaren erakundeekin... Eta ibilbide horretan guztian lau gauza nabarmen hauetaz jabetu gara:

- 1. Orain arteko gobernuak eskualde honetan makroproiektu ekonomikoak egin behar zirela iragartzeak frustrazioa areagotzea besterik ez du ekarri. Eta Pirinioak, Gai-degiaren diagnostikoak dioen bezala, biziberritu behar dira, lehenbailehen, baina, lehenbizi, inola ere ahaztu gabe bizilagunen autoestimua, eskualde honetako herritarrok izan behar dugulako bultzada honen protagonistak.
- 2. Euskal Pirinioako herritarrok behar adinako gaitasuna dugu lurralde hau aurrera ateratzeko, gure seme-alabei etorkizun hobea emateko, baina gure ibar eta herriak abandonatu gabe.
- 3. Gure eskualde honek ez du milioi mordoko inbertsio erraldoien iragarpenik behar, gero mendietako lainoa bezala desegiten baitira. Indar sozial eta ekonomiko egiazkoak behar ditugu, gure lurra eta gure jendea dituztenak oinarri, barne-mugimenduak sortzeko.

• Eta 4.: Pirinioetan badira hainbat ekimen mugaren bi aldeetan arteko harremanak sustatzeko helburua dutenak.

Lau ondorio horiei azken ondorio bat ere gehitu nahiko genieke: Euskal Pirinioak badu etorkizuna, bertako herritarrek hala nahi dutelako, zailtasunak zailtasun. Eta Udalbiltzako hautetsiok uste dugu etorkizuna hobea izanen dela mugaren bi aldeetako herritarren artean eraikitzen badugu. Izan ere, bat eginda joanez gero, indartsuagoak izanen gara.

Lanean emandako 18 hilabete hauetan, bide bat ireki da Pirinioetako bi aldeetan artean, eta bide hori jorratzen ari gara proiektuak, esperientziak eta ideiak partekatzeko. Udalbiltzaren aurrera eginen dugu, mugarik ez balego bezala, elkartzen gaituzten gaiak eta guztiona behar dugun lurraldea josteko aukera emanen diguten interesak bilatzen, aniztasuna eta pluraltasuna oinarri, horrela lortuko dugulako inposatu nahi izan diguten muga noizbait ere desagertzea.

Irakurleak mintzo

Segurako
Kantua.
Letra jakineko
epaiketa

Juan Jose PETRIKORENA
PETRI eta Patxi URRUTIA
("Segura" makroepaiketan
dauden baztandarrak)

"Jaio naiz libre izateko eta ez loturik egoteko", dio kantuak. Milaka zintzurrek, nahi beste aldiz, hamaika lekutan errepikatu dugu Euskal Herrian.

Urte asko dara-mazkigu bertso ezagun horiek gure bizitzako musika bihurtzen. Egunez egun, kantu horretan erraten dena praktikara eramaten. Pausoz-pauso, mantso bada ere, beti aurrera. Horrek espainiarak eta espekulatzailak kezkatzen ditu, eta egurra emanez mantendu nahi dute egoera bere horretan.


Libre nahi dugu bizi. Euskaldunak gara, euskaldun bizi nahi dugu, euskaraz. Gure euskal etxean zer egin eta no-

la bizi guk erabaki nahi dugu. Gure erabakia beharko luke izan ingurukoekin nola harreman-du nahi dugun, nolako harremanak lotu nahi ditugun.

Hori izan omen da gure "delitua". Burumakur nahi gaituzte, Espainiartuak halabeharrez. "Amen" erranez beti, kanpotarren menpe.

Horren aurrean, guk berriz ere harro eta ozen erran dugu libre izateko sortu ginela, eta ondorioz, lotuta eraman nahi gaituzte gure herri-ritik urrun.

Bertze gizarte mota baten alde ere lanean dihardugu. Miseri aunitz, ezinean dabilen jentide gehiegi ikusten ari baigara gure herrian. Bertze kudeaketa bat behar dugu, pertsona orori dagokion duintasunez bizi dadin jendea. Eta, horren orde, zer dugu? Injustizia asko. Bizkarroiak sobera; militar, errege, polizia, epaile, apez. Horiendako ondasun franko. Betiko legea: guri kendu eta horiei eman. Tele-



Bota bertsoa

Kotte PLAZA • Neurria: Hamarreko Handia

Baztango bertso eskolak bortz urte

Bestako gure "saiotxoetatik" sortua lehenik azaldu Baztango bertso eskolak jada bostgarren urtea badu. Hitzen jolasaz gozaten duen lagun taldea gara gu, pausu haundiak eman ditugu bertsoa indarrez landu eta ikasten jarraitzeko're gogo haundia daukagu.

Urtarrilean "Bortzeko haundian" lelopean dugu ekin bertso eskolaren urteurrenean bost ekitaldi desberdin, egitarauaz goza ezazue izango da hain atsegin guk bertso eskolan segiko dugu hitz, doinu ta errimez; fin egiten dugun lana denontzat gozagarri izan dadin.

grama bidez ere errez laburbildu liteke bizi dugun egoera:

Espekulatzailak agintari. Haien mesedetan egiten dituzte legeak. Politikari ustelak.

Egoera hau salatzen eta aldatzen aritzea da guk egindako "delitua", eta lotuta nahi gaituzte. Kontuz gainera, ez baitira txantxetan ari. Oraingoan 35 gara epaituak. Hamar urteko kartzela da eskaini nahi diguten "oparia". "Bergizarteratu" behar omen

gaituzte. Gure okerrak bi omen. Euskaldun izatea, eta bertze mundu bat amestea.

"Umetxo aska nazazu". Kantuak ere hala dio, loretxoa umeari zuzentzen zaionean. Hauxe eskatzen dizuegu zuei guk ere bai: mugitu zaitzete gurekin batera, zuek mugituz gero aske biziko baigara, nonnahi egonik ere.

Eskaera xume bat egitera ere ausartuko gara UPN, PP, eta PSNri botoa ematen diezue-

noi. Pentsa ezazue, talde horietako buruek zuek emandako babes hori ere erabiltzen dutela gu kartzelan are barrurago eramateko.

Baina sasi guztien ginetik, eta non nahi gaudela, kantuan jarraituko dugu. Sortu baiginen "libre izateko eta ez loturik egoteko". Gure ametsak errealitate bihurtuko dira, eta gu desagertuta ere bertze batzuk etorriko diren hori bultzatuko dutenak. Kanta dezagun kanta.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus



Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA



Tel.: 948 63 54 58



Faxa: 948 63 54 57

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
Ongarriak • Burdin tresnak
Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
ETXEZ ETXEXO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN ENEEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN ENEEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN ENEEK
Inskripzio Zenbakia 1435

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Prentsatik bildutakoak



«2014a urte ona izan da. Dauphinén irabazitako etaparekin eta Tourreko lehenbiziko astearekin geldituko nintzateke».
«Aurten ere gustatuko litzaidake Frantziako Tourrean izanen diren taldeko bederatzitxi-rrindularien artean egotea, ibilbide polita dauka neretzat, zortzi etapa mendi gainean bukatuko direlako, baina postua irabazi egin beharko dut»

Mikel NIEVE
Leitzako txirrindularia
D. NAVARRA 2014.12.18

«Norberak saltzen duen arraina norberak erosi behar du. Egu-berrietan bi pertsona mota ezberdinu daitezke: batetik, abendu hasieran erosten dutenak –bisigu edo txipiroi erosleak–; bertetik, azken unera arte itxoiten dutenak, legatza hartzen dutenak, adibidez. Ez galtzeko, nik egunean bertan edo astebete lehena-go erostea eta izoztea gomendatzen dut».

Ixiar ELORZA
Berako arrain saltzailea
BERRIA 2014.12.17

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Pertsona urduri xamar eta ardurasua naiz. Egiten ditudan gauzekin esijentea, batzuetan gehiegi.

Zer egiten du valentziar batek Zugarramurdin?

2006ko San Ferminek dute errua, orduan ezagutu nuen hemengoa den nire bikotea.

Valentziako paella edo sagardotegiko menua hobe?

Arroza da oraindik nire jaki gustukoena, sagardotegia geroz eta gehiago gustatzen zaidan arren. (irriz)

Euskara ikastenera ari zara...

Euskara entzuteko aukera dut inguruan, lagunek hala egin eta etxean ere euskaraz aritzen gara. Pixkanaka pixkanaka ikasten aski gustura ari naiz.

Zein afizio dituzu?

Musika, mariatxiak, afizio eta ofizio izan dut. Eta mendi lasterketak ere bai.

Zein instrumentu jotzen dituzu?

Perkusioarekin hasi nintzen umetan, aita mariatxia zen eta ari begira ikasi nuen. Tronpeta, gitarra, fiskornoa... eta mariatxi taldean tronpeta eta kantuan aritzen nintzen.

Zein mariatxi duzu gustuko?

Jaliskoko mariatxiak. Nire aita miresten dut eta Vicente Fernandez ere oso maitea dut.

Valentziara joanez gero zer bisitatu behar duguz?

Canet de Berenger, nire sorterrria, hondartza paregabea du. Valentziako alde zaharra eta eraikuntza berriak ere politak dira oso.

Euskal Herriko xoko bat?

Xuria mendia toki berezia iruditzen zait eta baita lbaintakotako gaina ere. Zegama ingurua, Aizkorri, ere ikusgarria iruditu zitzaidan.

Urte berrirako eskaria?

Lana eta osasuna.

Amets bat?

Mexikora itzuli eta miresten ditudan mariatxiekin abestea. Eta noizbait Zegama-Aizkorri maratoia egiteko txartela lortzea.



Pako Antoni MASCAROS → Zugarramurdin bizi den valentziarra

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxes. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

sarobe[®]
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
34780 bera-(navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE

bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!

CONDOR ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

ERROTAZAR

harategia

Bertako produktua

Eztegarra, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

MARITX

Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

BORTZIRIAK

GIZARTEA → ABENDUAREN 19AN BILDU ZIREN

Urte berriari gogoz ekin diote Jubilotekan

Lesakan 13 parte hartzaile eta Beran 20 dituzte

TTIPI-TTAPA

Bortziritako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Berako eta Lesako Udalen ekimenez, jubiloteka zerbitzua eskaini dute Beran eta Lesakan. Lesakan 13 parte hartzaile izan dira eta Beran berriz 20. Horre-

taz gain, azpimarratu behar da boluntarioen laguntza. Urteari amaiera eman eta berriari gogoz ekiteko besta bikaina egin zuten Beran, abenduaren 19an.

Pertsona hauen elkarbizitza eta garapena lortzeko tresna da jubiloteka. Kultura, aisia eta erlazio sozialez gozatu eta ideiak proiektuak, kezkak, beldurrak eta ilusioak partekatuz, baskardadeko sentimentuak uxatzeko ingurua. Jokin Apezetxeak azaldu



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Urte bukaerako besta egin zuten jubilotekako erabiltzaile eta laguntzaileek Beran.

digu «jubiloteka, nagusiak urte askoz, ilusioz eta zoriontasunez bizitzeko laguntzeko bitartekoa da. Pertsona hauen bizi kalitatea hobetu eta persona bezala maila guztietan hazten se-

gi dezaten».

Helburu desberdinak ditu jubilotekak. Bate-tik, galera fisikoa, soziala eta kognitiboa aurrez ikusi eta pertsonaren autonomia sustatzea lortu nahi da. Gai-

nera, elkartzeko lekua ere bada erlazio sozialez, aisiaz eta kulturaz gozatzeko eta menpekotasuna duten pertsonen senitartekoei atsedeen bat emateko ere bertako egokia da.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Bai Euskarari zozketa

Euskara Mankomunitateak, urtero bezala, Bai Euskarari zozketa egin du abenduan eta saridun zenbakiak honakoak izan dira: 4734 eta 3706. Orbela aseguruak banatutako boleto bat izan da lehenengo zenbaki saritua eta argazkian ageri den bezala, Maribi Gaztelumendi lesakarrak irabazi ditu Oninart dendak eskaintako Buatxabal markako 2 kamiseta. Matixa Oteiza dendariaren eskutik jaso du pozik saria Maribik, Orbela aseguru Oskar Txoperena, boleto sariduna banatu duena, ondoan duela. Bigarren zenbakia, 3706a, Berako Errekalde Ostatuan 4 laguntzeko otordua oparitzen duena, Etxalarako Aldalurberea landetxeak banatua da baina oraindik ez da saridunik agertu. Urtarrilaren 9ra arteko epea du irabazleak saria jasotzeko. Ordurako ez bada inor agertu saria eman gabe geldituko da.



Grupo AN
DESDE 1910



**KALITATE MAXIMOA
PREZIORIK HOBERENEAN**



AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiga Industrialdea • Banarta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

**GASOLIO A
prezio
ezin hobek**

ESKAINITZA BEREZIA!!

5 zentimo/litro deskontu zuzena
bankuko txartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIANTZAT...

Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 250€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erosiz gero

Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

* Eskaintza baliagarria urtarrilaren 31 arte. Promozioaz baliatzeko erosketa-tiketak aurkeztu behar dira. Kanpaina honetan parte hartzen duten jatetxeen zerrenda gasolindegian dagoen kartelean ageri da.

ERABILGARRI EGUNEKO 24 ORDU

KIROLA → URTARRILAREN 10EAN

Santa Barbarara 8. igoera eginen da larunbateko Mendi Egunean

Eskalada
tailerra eginen
dute goizean

TTIPI-TTAPA

Manttale, Agerra eta Gure Txokoak antolatutako Mendi Eguna eginen da urtarrilaren 10ean eta horren baitan Santa Barbarako igoera eginen da zortzigarren urtez, 2007ko urtarrilaren 13an Taillonon hildako Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegiren oroimenez. Baina ez da ekitaldi bakarra izanen. Goizeko 10:00etan eskalada tailerra antolatuko du te Altzateko frontoiaren kanpoko aldean edo kiroldegian (euriarekin).

14:15ean irekiko du-

te Santa Barbararako mendi ibilaldian eta binakako kronoigoeran parte hartzeko izen ematea. 15:00etan abiatuko da ibilaldia eta ordu berean, 12 urte arteko neska-mutikoenak lasterketak. 6,5 kilometro izanen dituen kronoigoera, berriz, 15:30ean hasiko da.

Probak bukatuta, berrendua eginen da Rikardo Baroja Eskolaren jangelan eta partehartzaileren artean zozketak eginen dira. 19:30ean Kultur Etxean Aitor Igiñitz gipuzkoarraren eta Laura Martinez Calderon madrildarraren *La vuelta al mundo a pedales* dokumentala eskainiko dute Kultur Etxean.



Ba al zenekien

Berako Mendi Maratoi Erdia bortz aldiz irabazia duen Didier Zago korrikalari frantziarra Manttale taldearekin aterako dela aurten



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Barandiaran omendu dute Uxaneko antzezlanaren ondotik

Aspaceko Uxane Zentroko ikasleek Eguberrietako ohiko antzerki emanaldia eskaini zuten abenduaren 19an Kultur Etxean. *Patxi, Alias Fraxku* antzezlanaren, Emaizta antzerki taldearen eta Berako Abesbatzaren laguntza ere izan zuten. Emanaldiaren ondotik, Patxi Barandiarain Uxane elkartearen ongilea omen-du nahi izan zuten eta Mikel Esnaola Urkia dantzariak Aureskua dantzatu zion.

URTARRILAREN 12AN BERALANDETAN

Haziera kontzientez solasaldia eskainiko du Miren Camisonek

TTIPI-TTAPA

Haziera kontzientea. Gure seme-alabak maitasunez eta errespetuz hezten solasaldia eskainiko du euskaraz Miren Camisonek urtarrilaren 12an, astelehenean 18:00etan Beralandetan. Sarrera doan izanen da. Bertzeak bertze, umetoki barreneko bizitzatik nerabezaroa arte, garapenaren eboluzioa; haurdunalditik 3 urte arteko garai erabakigarria eta gurasotasunaren kontzientzearen bidea azalduko ditu.

Bertze aldetik, aipatu behar da bularra ematea erabakitzen duten amei informazioa eta laguntza eskaintzea helburu duen Nafarroako Esnearen Ligak bilera eginen duela urtarrilaren 10ean, larunbatgoizeko 11etan Beralandetan.



Pertsonala

Naroa OTAMENDI ABRIL

Urrezko domina Arrasaten

Abenduaren 5etik 8ra XXVI. Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia ospatu zen Arrasaten. Lehiaketa hau ospetsua da bertan biltzen baitira estatu osoko akordeoilari hobereak. A mailan 35 partehartzaileraren artean Naroa Otamendi 9 urteko Beratarrek 2. puntuaziorik altuena lortu zuen, epaimahaia urrezko domina eman ziolarik. Naroak Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolan ikaste du eskusoinua eta Leire Telletxea irakaslearekin prestatu da lehiaketa honetan parte hartzeko.

Xirgil
Española
Jaione Goña

Altzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

BRANCHEA, s.l.
VITICULTORES DE LA BARRIOJA

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ZERBITZU BERRIA

Linea guztiak Bidasoako Ospitaletik pasatu edo ateratzen dira

IRUÑA-DONOSTIA						
Astelehena-Ortzirala (Ospitalera iritsiera)	07:40	09:50	11:50	13:50	15:05	19:50
Larunbatak		09:30			15:30	18:20
Igandeak-Jai Egunak						19:50

DONOSTIA-IRUÑA						
Astelehena-Ortzirala (irteera Ospitaletik)	07:55	10:00	12:00	14:00	15:10	18:30
Larunbatak	07:55			14:00		19:00
Igandeak-Jai Egunak		09:00				

www.laburundesa.com | 948 221 766 | 948 303 505

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behe 31780 BERA
t. 948 631 283 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

LESAKA

GIZARTEA → HAMABI URTERAKO, HOGEI URTERA ARTE LUZAGARRIA

Komentuko lokal bat Gaztetxea egiteko utzi du Herriko Etxeak

225 metro koadro hartuko ditu, bi solairutan banatuak

Aitor AROTZENA

Harriondoa Kultur Etxearen konplexuaren barnean dagoen lokal bat utziko du Udalak gaztetxea egiteko. Lokal hori lehenengo komentuko elizaren ondoan dauden areto batzuk osatzen dute, gaur egun biltegi moduan erabiltzen direnak. Abenduaren 10ean egindako bilkuran, areto hori doan uzteko espedientea hastea erabaki zuen. 12 urterako utziko da lokala, 20 urte arte luzatzen ahal den epea.

Egokitzeko proiektuaren arabera, lokalak guztira 225 metro koadroko azalera izanen du, 71 beheko solairuan eta 154 lehenengoan. Bertzalde, egokitzeko obrari dagokionez, Ganasak eta Nafarroako Gobernuako Arkitekтура-ondareko Zerbitzuak egindako txostenetan ezarritakoa bete beharko du.

Irabazteko asmorik ez duen herriko gazte elkarte bati utziko zaio lokala. Kontuan hartu behar da leku hori as-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Iribandaren bi emanaldiak bikainak izan ziren

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunekin batera, herriko musikari, dantzari eta talde ezberdinek parte hartu zuten abenduaren 21ean, bi saiotan eskaini zen *Iribanda* ikuskizun bikainean. Hasiara batean emanaldi bakarra ematekoa zen, baina salgai paratu orduko sarrera guztiak agortu zirenez, bi emanaldi egin zituzten eta bietan jendez gainezka ageri zen udal pilotalekua. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren kantu ezagunekin eta antzezlanarekin batera, Lesakako musika, kantuak eta dantzak ere taularatu zituzten, zehazki Pepito Yancik konposatutako *Lesakari* eta, emanaldia bukatzeko, zakozarrak ere atera ziren, Lesakako inauterien doinuekin. Giro bikaina sortu zuten pilota plazan. Musika Bandak, Zakozar baten irudia oparitu zien pailazoei eta Udalak ere litografia eskaini zien.

paldidanik biltegi gisa erabili dela eta Udalak baduela bertze bat, beraz, ez du momentuz horren beharrik. Lokala Udalaren jabetzakoa den ondarezko ondasun bat denez, espedientearen jendaurrean paratu zuten abendu hondarra bitarte, udal iragarki taulan eta udalaren web orrian.

San Anton eguna

Aurten larunbatarekin suertatzen da San Anton eguna eta egun horretan meza izanen da, 10:30etan eta 12:00etan. Baina ospakizunik handiena igandean egingen da. 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan izanen dira mezak. Arratsaldean musika izanen da Plaza Zaharrean.

Betizuen inguruko solasaldia ortziralean

Urtarrilaren 9an, ortzirale arratsaldeko 7etan *Euskal Herriko betizuenak. Europako azken baxa-behiak* hitzaldia eskainiko dute Saturnino Napal eta Miguel Retak Harriiondoako liburutegian.



Pertsonalia

Mikel RODRIGUEZ

Bere lehenengo eleberria kaleratu du

Mikel Rodriguez lesakarrak *Aratz. Begiradaren atzetik* eleberria kaleratu du. Fantasiarazko istorio bat izan du oinarri bere lehen-dabiziko lanean. Botoberdun gizakiak, mendeku nahia, aske izateko beharra, espioen arteko kontuak... nahastun dira liburuko orrietan. Umetatik izan du fantasiarazko liburu, komiki eta marrazkietarako afizioa eta argi zuen noizbait, zerbait idazteko bide horri helduko ziola. Marrazki bidez irudikatzea gustatuko litzaio-kela ere aitortu digu «baina horretarako trebeziarik ez eta idatzizko nire bertsioa osatzen hasi nintzen». Bi urteko idazketa prozesuaren emaitza da orain liburudendetan dagoena, «presiorik gabe, niretzat idatzi nuen eleberria eta gero etorri zen argitaratzeko aukera». Abenduaren 12an Harriiondoa Kultur Etxean aurkeztu zuen liburua.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

BERA
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorrio
lentzeria mertzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erregetgia · Asador
Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

GIZARTEA → ABENDUAREN 10, 11 ETA 12AN

Bertze urte batez Xorroxin Irratia eskolan

Gustora aritu
ziren ikasleak
esatari eta
teknikari
lanean

IGANDERO

Uda bitarte igandero eginen ditu ateraldiak Zapingorri mendi taldeak. 08:00etan izaten dute hitzordua.



ARGAZKIA: AINTZANE OLLOKIEGI

Landagain eskolakoak esatari lanean Xorroxin Irratian.

Irune eta Itsaso

Aurten ere Landagain eskolako haurrek Xorroxin irratan parte hartzeko aukera izan zuten. Abenduaren 10, 11 eta 12an, albisteak, ipuinak, kantuak etab eskaini zizkieten adi entzuten ari zirenei.

Urteari akabera emateko, abenduaren 19an Olentzeroren bisita izan zuten eskolan eta herriarrentzat ateak ideiak egon ziren.

Mendi irteerak igandero

Azaroaren akaberan eman zion hasiera Zapingorri mendi taldeak sasoi berriari. Uda bitartean, igandero izanen dira mendi irteerak eta Zapingorri taldeak denei gonbidapena egiten die goizeko 8:00etan plazara agertzeko.

Dokumental emanaldia

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eskutik, abenduaren 13an izan zen dokumental emanaldia. Hagitz arrakastatsua izan zen, kultur etxea jendez bete baitzen. Hemendik aitzinera DVD-a kultur etxean bertan salgai izan da.



ARGAZKIA: ANABEL ARBURUA

80 urtekoei omenaldia Larraburuan

Ohitura denez, San Frantzisko egunean, Larraburuak azken urtean 80 urte bete dituzten bazkideei omenaldia eskaini zien. Hauek izan dira omenduak: Feliciano Zubieta, Fco Javier Irisarri, Manuel Aguirre eta Fco Javier Sansiñena. 40 lagun baino gehiago bildu ziren bazkari ederraren inguruan eta ondotik oroigarriak eman zitzaizkien omenduei.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Larraburua mus eta partxis txapelketa

Abenduaren 21ean bazkari eta sari banaketekin bukatu ziren bi txapelketak. Musean irabazleak Benantxio Elizagoien eta Mattin Zelaieta izan ziren eta bigarrenak Jose Luis Arretxea eta Javier Irisarri. Partxisean berriz, irabazleak Koro Goienetxe eta Milagros Santesteban izan ziren eta bigarrenak Juana Mari Arburua eta Enkarna Iparragirre.



ARGAZKIA: XABIER BIZENTE

Etxalartarren arteko finala Bortzirietan

Abenduaren 14an jokatu ziren Berako Eztegarra pilotalekuan Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak. Kimuak B mailan Altxatoko Aiert Irigoien eta Unai Arburua, Markel Etxarte eta Koldo Bizenteren aurka aritu ziren. Txapelkunak Aiert eta Unai izan ziren 18-9ko emaitzarekin.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Olentzero ibili da karriz karriz

Abenduaren 24ean, arratsaldean, herriari itzulia eman zitzaion bi Olentzeroen irudiekin, txistulari eta trikitilariak lagunduta. Ilunabarrean Olentzero biziduna, bere astoa eta Mari Domingi laguntzaile zuela agertu ziren.

ARANTZA

GIZARTEA → URTE BERRIA HASI DA

Eguberri aroa pasatuta, urte berriko motorrak berotzen

Olentzero, Mari Domingi, hiru erregeek... bisita egin dute

Nerea ALTZURI

Urte berri on herriko irakurle! Zer moduz joan dira azken asteak? Nola hartu duzu urte berria? Tira, 2015ean gaude eta hasierako egun hauetan, ohiko bidea hartu izanen du batzuen egunerokoak. Olentzero eta Mari Domingi berriz ere mendira itzuliak... eta hiru erregeak ere etxerako bidean. Haurren oporraldiak bizipoza ekarri du herri-... hartutako opariek in jostetan seguraski!

Bertze urte bat etorri zaigu... eta osasuna opa dizuet denei!

Janari bilketa

Abenduaren 13an, Paris 365 Fundazioaren aldeko janari bilketa egin zen. Elikagai kilo aunitz bildu ziren hemen eta

Igantzin eta Eguberri aitzinetik Fundazioa bideratu zen bildutakoa. Herriarren eskuzabaltasuna eskertzekoa da.

Zahar Txoko

Abenduaren 19an Zahar Txoko Elkarteak urte bukaerako afaria egin zuen. Guzira 40 bat afaltiar bildu ziren eta urteko kontuen berri jakiteaz gain, afari goxoa egin zuten. Gauegun, 124 bazkide ditu Zahar Txokok eta sasoiari dago.

Zahar Txokok eskaintzen dituen zerbitzuen artean, podologoarena dago. Abenduaren 19an, 14 lagunek aprobetxatu zuten zerbitzua. Jendeak beharra duenean, Martin Legarrari deitzen dio. Nahikoa jende biltzean, podologoari abisatu eta eguna eta orduak ematen dira. Oinak zaintzea garrantzitsua da eta herrian berean profesional batengana joateko aukera ematen du Zahar Txokok.



Olentzero bizkarrean ederki ibili ziren gaztetxoak.

ARGAZKIA: I. UGALDE



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

Antzerki saioa eskolan

Joan den abenduaren 12an, eskolako gimnasioan, ikasle eta irakasleek prestatutako antzezlanak ikusteko modua izan zen. Gimnasioa ttiki gelditu zen, tanpetaino bete baitzen eta antzezlanak hagitz ongi atera ziren. Haur Hezkuntzako haurrek *Vi-valdiren lau urtaroak* izeneko antzezlan eskaini zuten; 1go eta 2. mailakoek *Eguna eta gaua*; 3., 4., 5., eta 6. mailako ikasleek, *Lehenengo ohitura zaharrak* lana taularatu zuten; eta DBHko neska mutikoez, berriz, *Hollywoodeko izarrak* lana. Tartean atsedendaldi bat egin eta Eguberritako bizareak zozketatu zituzten. Lehenbiziko zarearen jabea Ibaialdeko Pakita Larretxea izan zen, 1.403 zenbakia zuen boletoa berak baitzuen; bigarren zarearen zenbaki saritua 1.829 izan zen eta Berako Julen Errandoneak eskuratu zuen. Herritarren aitzinean antzezlanak eskaini ondotik, abenduaren 17an Etxalar eta Igantziko eskoletako ikasleentzat bertze emanaldi bat egin zuten.

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTATUA
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
TEL: 948 625 474
BERA NAFARROA

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com
Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibañeta 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

VENTA PEIO
Landibar
tabac prêt à porter restaurant supermarché tabac cadeaux maroquinerie

GIZARTEA → ABENDUAREN 7AN

Kirola eta hizkuntza uztartu zituen 'Euskaraz bizi nahi dut' lasterketak

Cristina Arbues eta Beñat Txoperena kirolariek irakurri zuten manifestua

TTIPI-TTAPA

Kontseiluak bultzatuta, duela bi urte Euskaraz bizi nahi dut lasterketa egiten hasi ziren Euskal Herriko hainbat herritan. Bortzirietan Beran egin zen lehen lasterketa hura, eta ia, berriaz, Lesakan. Lasterketa herriz herri txandakatzuz egitea hobetsi zenez, aurten Igantzin egin zen abenduaren 7an, Igantziko Euskara Bartzordeak antolatua. 70 korrikalari baino gehiagok aurre egin zioten hotzari, euskarari sustengua emanez.

Izen emateak itxita, Bortzirietako bertso eskolako neska-mutikoei hasiera eman zioten ekitaldiari, egun honetarako bereziki prestatutako bertso-xorta kantatuz. Ondotik, Beñat Txo-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Lasterketan parte hartu zutenek Herriko Etxearen aitzinean atera zuten argazkia.

perena eta Cristina Arbues herriko kirolariek manifestua irakurri zuten, *Egin dezagun kirola euskaraz, praktika dezagun euskararen kirola* izenburupean.

MANIFESTUA

Manifestuak zioenez, «euskaraz bizitzea ez da esprinta, bizitza osoko maratoia baizik. Poliki poliki, baina gelditu gabe, euskaraz bizi nahi dugu, guk arnasa har-

tzen dugun neurrian, gure hizkuntzak har dezan arnas. Euskararen kirolean ez dugu ekipazio garestirik behar. Euskararen kirolerako mingaina dantzatzeko gogo bertzetik ez dugu behar. Baina euskararen kirola taldeko kirola da. Euskararen kirola praktikatzeko euskaraz arituko diren solaskideak behar ditugu ondoan.

Euskararen kirolean ere zenbat eta gehiago

ari, zenbat eta gehiago entrenatu, orduan eta gusturago sentituko gara. Orduan eta errazago iganen ditugu aldapak, inolako esfortzurik gabe, naturaltasunez.

Euskararen kirolean denak gara irabazle. Euskararen kirolean denok lortzen dugu saria: euskaldun izatearen saria. Euskararen kiroleko baldintza guztiak dauzkagu: badugu ekipazioa, badugu gogoia,

baditugu euskararen kirola praktikatzeko espazioak, eta badugu euskararen kirola praktikatzeko denbora. Hor-taz... egin dezagun kirola euskaraz eta praktika dezagun euskararen kirola!».

PROBA ETA ARGAZKIA

Parte hartzaileen artean denek elkarrekin beroketa ariketak egin ondotik, lasterketak hasi ziren. Ttikienek 100 bat metroko lasterketa egin zuten, Herriko Etxetik ateri eta Allineko biguruzteraino joan-etorria. 6-14 urte artekoek 500 metro osatu zituzten, herriari buelta emanez eta koxkorra-goei, eta helduek, 2 kilometroko ibilbideari itzuli bat edo bi ematea aukeran izan zuten.

Bukaeran parte hartzaile guztiakin argazki erraldoia egin zuten, baita parte hartu duten guztien artean hainbat sari zozketatu ere. Frontoian ostatua (opilak eta edaria) eta materiala erosteko aukera izan zen goiz osoan.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea
iturgintza · gasa
kalafakzioa
Tfnoa: 629449602 · BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN



www.facebook.com/ttipi.ttapa

GIZARTEA

GIZARTEA → CEDERNA-GARALUR ELKARTEAK

Hurbileko landa merkataritza proiektuaren ondorioak aurkeztu ditu



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Abenduaren 18an egin zuten jardueren balantzea Malerreko Mankomunitatean.

Elkarte, herritar, komertzio eta kolektiboekin elkarlanean aritu dira

komunitatean egin dute jardueren balantzea eta beharrezkotzat jotute tokiko merkataritza sustatzeko ekimenak indartzea.

Parte-hartzean oinarritutako proiektua izan da elkarte, herrietako biztanle, komertzio eta kolektiboekin elkarlanean aritu baitira. Bost lan talde osatu dituzte Donezteben, Agoitzen, Zubirin, Zangozan eta Arbizun. Horretaz gain inkestak ere banatu dituzte, hurbileko merkataritzaren bilakabideari buruzko 163 inkesta

egin dira eskualdeko komertzioetan eta 300 inkesta pertsonal ere egin dituzte. Egoeraren inguruko ikuspegi osoa jasotzea zen asmoa, arazoak eta indarguneak identifikatzeko.

Azkenik, hiru sentsibilizazio jardunaldi antolatu dira Agoitzen, Donezteben eta Arbizun bertako merkatariekin. Diagnostikoetan antzemandako arazoak eta jorak eztabaidatu dira bertan, baita praktika onak ere, eta gainera hurrengo 5 urtetan hur-

bileko merkataritzan gara litezkeen estrategiak planteatu dira. Proiektuaren hedapenerako markarako irudi bat sortu da, eta publizitate kanpaina bat burutu dute tokiko hedabideetan "Hemen erosi, eguberrietan ere" lelopean. Eta etorkizunean ere kontsumo arduratsua sustatzeko, erosketa ohituren garrantziaz sentsibilizatzeko eta batez ere, gure herrietako dendak eta zerbitzuen eskaintza aintzat hartzeko.

TESTIGANTZAK

Elizondoko Fantxikeko Mikel eta Maider Sobrinok diotenez, «gure indarra bezeroengandik hurbil egotea da, beraz aholkurik hoberenak ematen saiatzen gara, modu pertsonalizatuan artatzen...».

Berako Fran Agarren erranetan, «sare komertzial on batek herri oso bat dinamizatzen du, biziarazten eta pozez betetzen. Aldiz, dena itxi anitz dituen herri bat ikusterakoan tristura sartzen zaizu».

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Mendialdeko arlo komertziala eta zerbitzuetakoa sustatzeko 'Hurbileko landa-merkataritza' koperazio proiektua gauzatu du Cederna-Garalur elkarteak. Abenduaren 18an Malerreko Man-

NEGUKO ESKAINTZA BEREZIAK

2.000 ↔ 156€
GUTUN-AZAL 22x11

5.000 ↔ 125€
FAKTURA ORRI A4

KOLORETAN | DISEINUA BARNE | INPRENTA BARNE | GARRAIOA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN



KOSKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.eus | www.kulturkari.com | www.ttipi.eus

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 13AN

Denboraldi bukaerako besta polita egin zuten kanpinean

Mus txapelketa Angel eta Jesusek irabazi zuten

Maidier PETRIRENA

Aritzigain kanpineko denboraldi bukaerako besta egin zuten abenduaren 13an. Arratsaldeko 4etan hasi zen festa haurren ginkana batekin. Altxorra bilatzea zen helburua hainbat proba gaindituz. Bi taldeetan banatu ziren eta

urdirak izan ziren azkarrenak. Ondoren aurpegiak pintatzeko aukera izan zuten. Mus tximista txapelketan 15 bikote aritu ziren. Irabazleak Angel eta Jesus izan ziren, bigarrenak Patxi eta Jose Luis, hirugarrenak Ines eta Joze eta laugarrenak Joxe Angel eta Juango.

Txokolatea dastatzeko aukera ere izan zuten haur guztiek. Ondoren bingoan ere disfrutatu zuten. Lehengo linea egin zuena Ane



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Mus txapelketako lau bikote onenak, bingo protagonista eta altxorraren bila ibili ziren neska-mutikoak.

Etxalar izan zen eta bingoa berriz Iraitz Ayesa. Bigarren txandan berriz, lehenengo linea egiten, Txus Rekarte izan zen, eta bingoa berriz Jackeline. Zorionak guztioi.

Ilunabar partean, afaldu baino lehen Oharkabe taldeak bere emeraldia eskaini zigan. Egia erran hurrek izugarri disfrutatu zuten momentu xume eta goxo honetaz. Ondoren

afaltzeko tenorea ailegatu zen. 50 pertsonen afari eta dantzaldi eder horretaz disfrutatu zuten Oharkabe taldearekin. Egun ederra izan zen eta eskerrik asko antolatzaileei.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Eguberrietan ere adinekoak eta gaixo daudenak gogoan uzan zituzten

Abenduaren 22an jende adintu eta gaixorik daudenen etxeetara joan ziren guraso eta haur batzuk eguberrietako kantak kantatzera Miren akordioilariarekin batera. Jesus adoratzeko aukera izan zuten eta opari moduan turroi bat eman zitzaizen. Argazkia Epetxenean ateria da. Paskula eta Mañula dira argazkian ateratzen direnak haur eta herriko erretorearekin. Adineko jendeak gustora hartu zuten ttikien bixita eta egun berezi hauetan bihotza alaitu zitzaizen umeen jolas, irri eta ateraldiekin. Lerro hauen bitartez, neska-mutikoek opa zieten opa dizuegu zuei ere: Urte berri zorionsua!



ARGAZKIAK: GARI AYESA ETA MAIDER PETRIRENA

Olentzerori harrera beroa egin zioten herriko neska-mutikoek

Bi taldeetan banatuak egin zioten harrera Olentzerori neska-mutikoek. Koxkorenak karretera aldeko auzora joan ziren Olentzero bizkarrean harturik eta hirukitilarirekin. Ttikienak berriz, ongi etorria egin zioten bere astoarekin menditik zetorren Olentzerori. Eguraldia lagun bueltaxka egin zuten eta denek frontoian bukatu zituzten beraien ibilbideak, txokolate goxoa dastatuz.

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

Olentzerok eta Mari Domingik alaitasunez eta ilusioz gainezka bisitatu gaituzte

Erreka dantza taldeak sua, musika eta dantza nahasi zituen bere ikuskizunean

Marga ERDOZAIN

Eguberrietan eta, azkeneko urtetako ohiturari jarraituz, Olentzero eta Mari Domingi Doneztebeko karriketan barna ibili dira bertako dantzariak, musikariak eta doneztebarrek lagunduta. Urtero, Olentzeroren etorrerak gau horren magia eta ospakizuna gozaraztera murgiltzen gaitu. Gau magikoa benetan, norberak zentzua bilatuko dio, nahi duen kutsua emanaz: kristaua edo bestelakoa. Edozein izanda ere, ez dago zalantzarik zirrargarria dela egun horretan bizi dugun giroa. Gau magiko honetan neguko solstizioaren oihartzuna agerian gelditzen da. Tradizio paganoa eta erlijioa, biak uztartuta, biak orekan, biak unibertsalak... Erreka Dantza taldeak musika, dantza eta suzko elementuak nahasita, ongi harmonizatuta, Olentzero eta Mari Domingiri agurra eginez sinesmen zaha-

rra eta kristaua ederki uztartu ditu aurtengoan ere. Batzuek Jesusen jaiotza beste batzuek ospakizun unibertsalagoa izan da. Ama-lurra lotan dago, gure mendietako hartza neguloan baina udaberriko ekinozioa iristean, hartzarekin batera, ama-lurra esnatuko da, indarrak gabe izan den Eki edo Eguzki (euskaldunontzat bizitzaren jainkosa) berpiztuko da, uztak azalduko dira eta gizakia bizimodua lur azalean izan da, aisago, errazagoa, neguko leize-zuloen babesa, behin behineko baztertuta. Itxaropen hori izanda, gure pizkundea ere gauzatuko dela amestuko dugu. Ea magia horrek 2015. urtean zehar irauten digun!

Bigarren zine emanaldia bertan behera

Mendaur guraso elkarteak, Erreka guraso elkartearen babesa izanda, bigarren zine emanaldia bertan behera utzi behar izan du azken bolada honetan arazo larri anitz nozitu behar izan dituztelako elkarteko kideek. Arazo hauek honako hauek izan dira: bertan eza-



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Erreka mendi taldekoak Saioan

Urte zaharra agurtzeko egiten dituzten ohiko ekitaldien artean, Errekako mendizaleak Saioara igo ziren abenduaren 24ean. 31 mendizale bildu ziren. Bertze aldetik, Elgorriagako Xabier Irisarrik irabazi du Errekaren Eguberrietako saski bikaina, bera baitzen 7.113 zenbaki saridunaren jabea. Abenduaren 24an jaso zuen saskia, Errekako Nerea Telletxearen eskutik.

rritako arauak haustea (garbitasuna, txukuntasuna), bertaratzen direnekiko errespetu eza, baita arduradunen autoritatea kolokan jarri izana ere. Erabaki hau hartuta, guraso elkarteak familiek gogoeta egitea nahiko luke mota honetako ekimenak burutu ahal izateko oinarritzko errespetua funtsezkoa delakoan baitaude.

Matrikulazio kanpaina berria euskaltegian

IKA euskaltegiak ikasturte berria urrian abiatu bazuen ere, urtarrilean matrikulazio kanpainako bigarren epealdia zabaldu du. Urtarrilaren bukaera arte dagoeneko lanean ari diren taldeetan izena emateko aukera dago. Bai klase presentziale-

tan baita on-line edo autoikaskuntzako klasetan ere. EGA edo C1 titulua lortzeko aukera ere eskaintzen du euskaltegiak.

Bertze aldetik, aipatu behar da euskara hasieratik ikasi nahi dutenentzako ikastaro bat antolatu nahi dela. Interesatuak 948 451555 telefonora deitzen ahal dute edo zuzenean euskaltegitik pasa.

GIZARTEA → ERREKA ETA MENDAU GURASO ELKARTEEK

Bi hitzaldi eta irriterapia saioak antolatu dituzte

Ekimen hauekin 2015ean gurasoen prestakuntzarekin jarraituko dute

M. ERDOZAIN

Lehendabiziko hiru hilabetekoan Guraso Eskola burututa, bi guraso elkarte hauek hasi berria den urterako hainbat ekimen prestatu dituzte guraso prestakuntzarekin lotuak. Heldu den urtarrilaren 19an tailer-hitzaldia burutuko da *Nola egin gure umeek hutsak bere gain har ditzaten* gaia landuz. Martxoaren 9an *Adosten nire seme-alaba nerabeekin* gaia landuko da beste tailer-hitzaldi batean. Bi

tailer hauek Carmen Nieto psikologoak bideratuko ditu eta, beti bezala, bertaratuko diren gurasoen parte hartzea eta ekarpenak kontuak hartuko dira dinamika arina sortarazteko. Otsailerako, berriz, irriterapia tailer bat antolatuko da. Aipatu behar da irriterapia ekimen hau DBHeko 2. mailako ikasleekin burutuko dela eta gaiaren egokitasuna ikusita helduengana iristeko apostua egin behar du dela bi elkarte hauek.

Formakuntzaz gain, Erreka eta Mendaur guraso elkarteek elkarbizikidetzaren inguruko ekimenetan erkarlanean jarraitu behar dute, zentrotako zuzendaritzarekin eta baita Mankomunitateko Haurtzaro eta Familia Zerbitzuarekin ere.

GIZARTEA → ABENDUAREN 16AN ANTSOAINEN

Pirinioetarako laguntzen bigarren deialdia aurkeztu du Udalbiltzak

120.000 euro banatuko ditu 28 proiekturen artean

TTIPI-TTAPA

Udalbiltzako Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak laguntzetarako deialdi berria jarri du abian, 'Euskal Pirinioetan lan eta bizi' programaren baitan. Pirinioetako ekintzaileek, eragile sozialek eta erakundeek otsailaren 16ra arteko epea dute proiektuak aurkezteko. Guzti-

ra 120.000 euro banatuko dira mikroekintzailetzako 28 egitasmoren artean. Laguntzetarako hiru programa izanen dira: 'Eragin', jarduera ekonomiko berriak sustatzeko programa (80.000 euro, 20 proiekturentzat); 'Elgarrekin', saretze programa (20.000 euro, 4 proiektu) eta 'Garapen soziala', egitasmo sozialak sustatzeko programa (20.000 euro, 4 proiektu).

Laguntzen deialdia 2014an egin zen aurrenekoz, eta arrakasta



UTZITAKO ARGAZKIA

Udalbiltza eta Cedernako ordezkariak, Antsoainen egin zuten aurkezpenean.

handia izan zuen. 66 proiektu aurkeztu ziren, eta haietatik 19 hautatu zituen epaimahaiak (laguntzetako bat eman gabe gelditu zen). Proiektu bakoitzak 6.000 euro jaso zituen eta Fondoak tutore bana jarri zien, nola gauzatzen zen ikuskatzeko. Tutoretza lan horretan zenbait entitate laguntzen ari dira, besteak beste Cederna Garalur, Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta Gaindegia. Horrez gain, Fondoak

lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ditu Herrikoarekin eta Fiare-Banca Etikoarekin, proiektuek finantzabidea izan dezaten. Deialdi honetan diru-laguntza jasoko dezaketen proiektuen kopurua handitu egin da -20tik 28ra-, baita esku-hartzearen eremua ere. Aukeratutako lurraldean 103 herri sartu ziren aurrekoan, Nafarroa Garaian, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, eta orainoan, berri, 128 izango dira.

HITZARMENA

Udalbiltzarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez, Cederna-Garalur erakundeak ere parte hartuko du 'Euskal Pirinioetan lan eta bizi' programan. Izan ere, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak eta Cederna Garalur elkarrekin bat egiten dute diagnostiko honetan: premiazkoa da Pirinioetako eremuan inbertsio politika handitzea eta tokiko garapen ekimenak lehenestea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia
Urtarrilaren 13tik aurrera

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → EGUN BEREZIAK DATOZ

Zaharra gibelean utzi eta urte berria gogoz hasita

Guraso
Elkarteko
boleto
saridunen
jabeek
hilabeteko
epea dute saria
eskuratzeke

Arkaitz MINDEGIA

Hasteko Urteberri on Iturengo biztanle guztiei eta nola ez baita irakurle guztiei ere. 2014 urtea ederki bukatu genuen herri baxter honetan eta baita hasi ere. Espero dugu urte polita izatea. Negua iritsi da kanpora eta etxe barruan suaren ondoan igaroko ditugu urteko lehendabiziko egunak.

Pulunpa eskolakoak

Eguberrietako opor-rak pasatu ondotik, Pulunpa eskolako ume eta irakasleak itzuli dira eskolara. Eguberrietan azken eguneko jaialdian oso ongi pasatu zuten bai parte hartzaileek eta baita hurbildu ziren guztiek ere. Adin guztietako ikasleak eta irakasleak taldeka beraien ikuskizuna prestatua zuten kanta, dantza, irri eta algara nagusitu ziren. Bukatzeko gosari eder bat egin zuten. Pulunpa eskolako guraso elkarteko boletoen zozketa ere egin

zuten. Txartel saridunen jabeek hilabeteko epea izanen dute saria eskuratzeke. Hau idazterakoan, bi sari bakarrik gelditzen ziren jaberik gabe:

1. saria: Zare bat (0128, Joakin Aioroa).

2. saria: Zare bat (0113, Itziar Goñi).

3. saria: Zare bat (0516, Lourdes Etxenike).

4. saria: Bi lagunendako gaua eta gosaria Abarun aterpetxean (0347, Eider Altxu).

5. saria: Bi lagunendako menuko afora Iturengo herriko ostatuan (0703, agertu gabe).

6. saria: Bi lagunendako bazkari edo afora astebarruan Zubietako herriko ostatuan (0341, Edurne Mikeo).

7. saria: Bi lagunendako Taloak eta bere edaria Elgorriagako Ostatuan (0410, Elgorriagara saldua).

8. saria: 20 euroko Bonoa Ariztegi Harategian (0666, agertu gabe oraindik).

9. saria: 20 euroko Bonoa Eider Ileapaindegian (0334, Eva Elizalde).

Boletoez gain, urtero bezala, guraso elkarteok 2015eko egutegiak ere egin dituzten. Bertan mailaka ageri dira Pulunpa eskolako ikasleak, herriko komertzioetan daude salgai 3 euroren truke.

BEINTZA-LABAIEN



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Olentzero etorri da Beintza-Labaienera ere

Eguberri bezperan, eguraldia lagun, Labaindarrak karrigarra atera ziren egun honetako ohitura jarraituz. Arratsaldeko 3:30ak aldera bildu zen Labaingo plazan haur eta gazte taldetxo bat. Etxez etxe gabon kantak abesten zihoazen heinean, jendea taldetxora hurbiltzen hasi zen. Ilunabarrean akitu zen Beintzako auzoan karrigan itzulia eta gorputzari beroaldi bat emateko asmoz, bertako ostatuan berendu goxoa eskeini zuten. Olentzerorekin batera txokolatua hartu ondoren, herriko haurrek oparixoren bat ere jasotzeko aukera izan zuten ikazkinaren eskutik.

ABENDUAREN 23KO EZ OHIKO BATZARREAN HARTU ZUTEN ERABAKIA

Bertizko Partzuergo Turistikoa desegin da

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 23an egindako ez ohiko batzarrean Bertizko Partzuergo Turistikoa desegitea erabaki zuten. Honela, duela 22 urte osatutako erakundea desagertutzat eman dute abenduaren 31n. Partzuergoak ohar bidez aipatutakoaren arabera, Baztango Udala Partzuergotik ateratzeak eragin du erabakia, «bere neurriarengatik, behar beharrezkoa baita bere partehartzea, bertze 13 udalerritiikiago, 8 elkarte eta arlo pribatuko 200 enpresa baino gehiago biltzen dituen partzuergoaren bideragarritasunerako».

Bertizko Partzuergo Turistikoak 500.000 euroko aurrekontua izan du 2014. urtean. Kopuru horretatik 63.358 euro udalera jarri dute, bizilagunen arabera eta 45.601 euro erakundea osatzen duten zortzi elkar-teek ordaindu dute. Gainerakoa, Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak, *merchadinsing* eta kanpaina edo jardunaldi ezberdinen bidez lortzen da.

Bide Berdea finantzatzeko Europako eta Nafarroako Gobernuko laguntzak bueltatu beharko dira, lau langile kaleratuko dituzte eta bertze hainbat proiektu kolokan geldituko dira.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 17AN

San Anton egunerako hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Goizean meza eta luntxa izanen da baselizan, eguerdian herri kirolak eta arratsaldean antzerkia eta musika

Fermin ETXEKOLONEA

Larunbata suertatzen denez, zerbait be-

rezia antolatu nahi du Udalak San Anton Egunerako, urtarrilaren 17an. Goizean meza izanen da San Antongo baselizan eta meza ondotik hamaiketakoa.

Eguerdian, herrigunean izanen da giroa, herri kirol saioa izanen baita. Arratsaldean, Are-soko antzerki taldeak emanaldia eskainiko du. Beti bezala, herriko musikariekin estalpean ilunabarrean giro polita izanen da. Berendu-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Mari Domingi eta Olentzero etorri zaizkigu aurten ere bixitan

Urtero bezala, Mari Domingi etxez etxe ibili zen abenduaren 22an gutunak biltzen. Aurtengoan Jone eta Iker izan zituen laguntzaile eta Joxe Mari eta Ainhoa triki eta panderoarekin musikaz bere etorrera abisatzeko. Goxokiak ere banatu zituen Mari Domingik eta haurrei mezu bat bakarrik eman zien: txintxo portatu behar direla urte guztian. Olentzero, berriz, abenduaren 24an etorri zen, ilusioa eta opariak banatzera.

txoren bat eta mus txapelketa ere egiteko go-go bada, baina hau idazterakoan ez da zehaztua.

Baserritarrendako eta mendi mutilendako beti egun berezia izan da San Antongoa, baina urteen poderioz in-

darra galtzen joan zen. Azken urteetan, berriz ere indartzen ari da eta giro polita sortzen da herrian.

KULTURA → EUSKAL MITOLOGIARIK OIPIKAK

Izaskun Zubialde herritarrak liburua idatzi du

Oraingoz formatu digitalean dago bakarrik

TTIPI-TTAPA

Belaunaldiz-belaunaldi, ahoz-ahoz gure kultura osatzen duten pertsonai, mito eta kondairak iritsi zaizkigu. Historian zehar, gure zaharrek naturan gertatzen diren fenomeno ezberdinak, ingurua eta natura bera ere ulertu di-

tuzte mitologian oinarrituz. Ezagutza eta sinismen hauek belaunaldiz-belaunaldi hazten joan dira. Oraingoz aberastasun hau gure 3-7 urteko txikiengan hurbildu nahi izan dute Izaskun Zubialde idazle zubietarrak, Bakarne Atxukarro idazle irundarrak eta Asun Egurza ilustratzaile barañaindarrak *Euskal mitologia. Haurrentzako ipuinak* bilduma libururakin. Oraingoz liburua digital formatuan dago



UTZITAKO ARGAZKIA

Izaskun Zubialde eta Bakarne Atxukarro idazleak, liburuarekin.

bakarrik. «Aurkezten dugun lan honek ondare kultural hori gurasoengandik umeengana ahoz transmitzeko helburua dauka. Ilustrazioz beteriko liburu honek helburu horiek betetze-

ko tresna erabilgarria izatea espero dugu» aipatu digu Izaskun Zubialde zubietarrak. Amazonen webgunearen bidez jausten ahal da liburua, 2,68 euro ordainduta. Egileek ez dute

baztertzen paperezko edizioa ere argitaratzea. Bi hizkuntzetan idatzirik dago, euskaraz eta gazteleraz. Frantsesez ere prestatu dute jadanik eta ingeleraz egitea ere ez dute baztertu.

GOIZUETA

KULTURA → 32 ABESLARI DITU GAUR EGUN

Kantatzea gustatzen zaienei dei egin die Umore Ona Abesbatzak



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza, abenduaren 19an elizan eskaini zuen Eguberrietako emanaldian.

Bederatzi urte bete dituen taldea kimu berriekin indartu nahi dute

en oharrak dioenez, korukide berriak hartuko lituzke gustora bere baitan. Taldean sartzeko baldintza bat bakarra bete behar omen da: kantatzea gustuko iza-tea.

Kultur Taldearen ekimen bati esker sortuzen Abesbatza orain dela 9 urte. Inork uste ez bezalako jende kopuruak

erantzun zion deialdiari, 40 herritar baino gehiagok. Ibilbide oparo honen barrenean, orduan hasitako batzuk utzi egin dute taldea arrazoi ezberdinagatik, baina hainbat kide berri ere hasi dira urte hauetan. Horrela, 32 abeslarik osatzen dute gaur egun

taldea, 19 emakumek eta 13 gizonek.

Bada, esan bezala, zuhaitza indartuko duen kimu berri izan nahi duenak nahikoa du koruko edozeini aipatzea. Eguberriak bukatu bezain pronto hasiko dira ostiraleroko entsaioekin.

Beste aldetik, argazkian ageri den bezala, abenduaren 19an Eguberrietako emanaldia eskaini zuen Abesbatzak elizan, Eneko Amundarainen zuzendaritzapean eta gero elkartean egindako afarian bildu ziren abeslari guztiak.

TTIPI-TTAPA

Umore Ona Abesbatzakaleratu berri du-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Zahar Etxearen 11. urteurrena

Zahar egoitzak hamaika urte bete dituela eta afari-berendua egin zuten abenduaren 18an. Berriz ere, adinean goiti joan arren umoreak ez duela behera joan beharrik erakutsi zuten eta giro ederrean ospatu zuten urteurrena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Alkainzuriango auzolana ere arrakastatsua

Udazken-negu partean Udalak deitu dituen auzolanek herritarren erantzun bikaina jaso dute. Abenduaren 14an Alkainzuriango bi-dea garbitzeko egindakoa ez zen gutxiago izan. Lana gogotik egin ondotik, hamaiketako ere izan zuten, noski.



12
KAMISETA
ZOZKETATUKO
DITUGU
urtean zehar

onddo
ta punto.

Zapigurutze, 3
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)
Tel./Fax: 948 450 236
www.onddotapunto.com



LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa
egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere



ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa^{rekin} zure iragarkiak
eragin haundiagoa du

TTIPI-TTAPA
27.000 irakurle



D. NOTICIAS 12.000 irakurle
D. NAVARRA 10.000 irakurle
GARA 8.000 irakurle
MARCA 2.000 irakurle
BERRIA 2.000 irakurle
BESTE BATZUK 7.000 irakurle

Sexuaren arabera
GIZONAK %36,80
EMAKUMEAK %63,20

Adinaren arabera
14-24 urte %8,50
25-34 urte %15,10
35-44 urte %25,40
45-54 urte %20,90
55-64 urte %17,90
+ 64 urte %12,20

Ikasketa mailaren
arabera
IKASKETARIK GABE %1,40
LEHEN IKASKETAK %11,70
LANBIDE HEZIKETA %37,00
BATXILERGOA %30,80
UNIBERTSITATEA %19,00

Datu iturria:
CIES 2014ko 2. neurketa



LEITZA

HITZORDUA → UDALETXEAN 18:30EAN

Abian da kale komunikaziori buruzko parte hartze prozesua

Urtarrilaren 9an, 16an eta 30ean egingen dira hurrengo saioak

JM BARRIOLA

Abenduaren 12an Leitzako udaletxean *Zer da gure paretek kontatzen digutena?* parte-hartze prozesuari hasiera eman zioten hainbat herritarrek. Kartel, pankarta, pintaden... inguruko kudeaketak nolakoak izan behar duen denen artean erabakitzea da asmoa.

Lehendabiziko saio hau gaia kokatzeko baliatu zuten. Lehenik Iker Casanovak Euskal Herriaren historia hurbilean kale komunikazioak eduki izan duen garrantziaz hitz egin zuten. Ondoren udaleko kideek

Leitzako kaleen egoera zein den azaldu zuten, eta amaitzeko Markel Ormazabalak kale komunikaziorako aukera berriei buruz hitz egin zuten. Sprai, pintura eta karteak dituzten abantaila eta desabantaila buruz ere hitz egiteko aukera izan zuten. Gainera, udaletxera bertaraterik izan ez zutenek saioa Twitter bidez jarraitzeko aukera izan zuten @leitzakoparetek sarreraren bidez.

Lehendabiziko urratsa eman ondotik, saio garrantzitsuenak urtarilean izanen direla azpimarratu dute antolatzaileek, eta herritar orori gonbita egiten die bertan parte-hartu dezaten. Urtarrilaren 9an, 16an eta 30ean, arratsaldeko 6,30etan jarri dute hitzordua udaltxeko batzar aretoan.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Udaltxeko batzar aretoan bilduko dira datozen ostegunetan gaia lantzen segitzeko.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Sukaldaritza gizarteratzeko tresna gisa

Azaroaren erdialdean hasi eta urtarrila bukaera bitarte sukaldaritza tailerra ari dira egiten. Maite Perurenak, gizarte zerbitzuko teknikariak bultzatu zuen ekimena geroz eta gizon gehiago bakarrik gelditzen ari zirela ikusi eta egunerokoan moldatzeko bitartekoak eskaintzeko asmotan. Astean behin biltzen dira hiru orduz eta sukaldaritzako oinarriko ezagutzak jasotzen dituzte, beraien autonomia indartzeko. Elkarlana sustatzeko, osasuntsuak eta ekonomikoak diren ohitura batzuk hartzeko eta modu errazean errezeta berriak ikasteko aukera ematen du tailerrak. Errezeta liburuxka bat ere ari dira osatzen eta presio-eltzea nola erabili ikasten ari dira.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA/ E. IRAOLA

Orantzaroa indarra hartzen ari da herrian

Azken urteotan indarra hartzen ari dira Orantzaroren inguruan antolatzen diren ekitaldiak. Argazkietan ikusten den moduan, etxeetako balkoi eta leiho ixkinitan Orantzaro eta Mari Domingiren irudi ugari jarri zituzten herritarrek eta eguberri egunean. Gaztetxoek kalejira egin zuten eguerdi aldera plazaraino, txistu eta trikitixa soinuekin kaleak alaituz eta, arratsaldean, Orantzarori harrera egin zioten plazan. Eta urte sasoiari dagokion beste ekitaldi klasikoak ere antolatu zuten abenduaren 31n: San Silbestrea. Hiru kategoria desberdinetan banatu zuten lasterketa, adin guztietako korrikalariek parte hartzeko moduan.

AURREKONTUAK → BASO-LANETARAKO BIDERATUKO DA KOPURURIK HANDIENA

Udalak 2015eko behin behineko aurrekontuak onartu ditu

Inbertsio ahalmena berreskuratuz

Juana Mari SAIZAR

Abenduaren 19an egindako herri batzarraren azaldu zituen udal taldeak urte berrirako esku artean dituzten proiektuak. 2015eko behin behineko aurrekontuak onartu dituzte.

Baso-lanetarako bideratuko dute aurrekontuaren zatirik handiena, zehazki %13,5. Nahiz eta basoetan inbertsio handia egin, aurrekontuen orekari eustea lortuko dutela jakinarazi dute sarrerak eta gastuak paretsuan ibiliko baitira. Diru sarrerak egonkortuta tasa eta zergak izoztu egingo dira.

Iaz hasi ziren egokitzten lbiurtik herrirako oinezkoentzako bidea. Urte osoan erabilgarri izan dadin egokitzez bukatzea proposatzen dute eta zeregin horretan 4.000 euro inguru inbertitzea aurreikusten da.

Udaran bi pertsona kontratatzea aurreikus-



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Eguberrietako kontuak...

Aurtengo eguberrietan ere etxeko ttikienak izan dira protagonistak. Abenduaren 24an auzo auzo kantari eta eskean ibili ziren gurasoekin batera, arratsaldeko 18:00ak aldera bisitan etorri zen Olentzerori bidea eginaz. Eguberri eguneko meza berezian ere, asteartero entseatutako kantuak abestu zituzten eta errege bezperan gogotsu astindu zituzten zintzarriak erregeei deituz.

ten dute. Gastua 15.000 euro ingurukoa izango da, iaz baino %50 gehiago eta erdia diruz lagundua izago da.

Eskolako parkeko kautxozko zorua berritzeko asmoa dauka Udalak eta horretarako aukera desberdinak aztertzen ari dira. Gastua 8.000 euroren bultzatan ibiliko litzateke.

URTARRILAREN 31RA ARTE

Etxebizitzak erosteko zerrendan izena emateko epea luzatu dute

TTIPI-TTAPA

Etxebizitzak eraikitzen hasteko gutxieneko kopurua lortu ez denez izen-emateko epea hilabete bukaerara arte luzatzeko erabakia hartu du Udalak. Norbaitek proiektuaren gaineko xehetasun gehiago jakin nahiko balitu, udaletxean eskuratu dezake informazio guztia.

KIROLA

Mendian federatzeko izen-ematea zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Mendian federatu nahi dutenek udaletxean eskuratu dezakete beharrezko informazio guztia. Nafarroako txartela edota Espainiako Mendi eta Eskalada Federaziokoa lortzeko aukera izanen dute erabiltzaileek. Horretaz gain, aurreko urteetan bezalaxe adinaren eta estalduraren arabera ordaindu beharrekopurua desberdina izango da. Prezio guztiak biltzen dituen taula jarri dute udaletxean eta taulako prezioei deskontua gehitu behar zaiela ere gogorarazi dute, Kirol Mankomunitateak %15eko dirulaguntza eskaintzen baitu. Aurreko urteetan federatuta egon direnek, izena eman eta modalitatea zehaztuta ordainketa egin beharko dute. Aurten estrainezko federatutako direnek berriz, udaletxean emango dieten fitxa ere bete beharko dute, ordainketa egiteaz gain.

JATETXEA
irusa
Arkiskil auzoa • LEITZA
ERRESERBAK:
608 091 281 • 948 397 035

HOTETAKO MENUA
25€ BEZ BARNE

Lehen Platerak	Postreak
Etxeko hiru hasierako pikatzeko	Txokolate-moussea laranja-esentziarekin
Bigarren Platerak	Petit Chouxak esnegaina eta txokolate beroarekin
Bakailaoa piperradan	Jogurt-krema
Txipiroiak bere tintan	Limoi-sorbetea
Ahate bularkia porto saltsarekin	Sagardoa, Etxeko ardoa, ura, ogia eta kafea
Txekor saheskia parrilan	

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 7AN

Harritik herrira ekitaldi-jaialdia egingen dute Amaiurko gazteluan

Auzolanean egindako pasabidearen bizker besta egin zuten abenduaren 13an

TTIPI-TTAPA

Amaiurko herriak, Baztango Udalak, Udalbiltzak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Amaiurko gazteluaren sarbide eta plataforma berriak eraiki dituzte 2014. urtean, kultur ondare honek merezi zuen estetika zaindu egin da, eta, dagoeneko, eroso eta seguru bisita daiteke. Abenduaren 13an egin zuten agerraldian, erakundeek akitutzat eman dituzte lan horiek, eta iragarri dute martxoaren 7an ekitaldi-jaialdi bat egingen dutela bertan, *Harritik herrira* izenekoa, gaztelua guztion eskura dagoela ospatzeko.

Isaac Rekalde Amaiurko alkateak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Juantxo Agirrek azaldu zuten, Amaiurko gaztelua Nafarroako mugargari historiko garrantzitsuenetakoa da, eta belaunaldiz belaunaldi Erresumaren defentsan gazteluan izandako bo-

rroka eta erresistentzia goraiatuak izan dira. Amaiurko herriak bultzatuta, azken 9 urteotan Aranzadi Zientzia Elkarteak arkeologoek eta Amaiurko bizilagunek indusketa arkeologikoa egin dituzte. Lurazpian gordeta zeuden aztarnak azaleratu egin dira, Erdi Aroko dorre eta harresiak, XVI. mendearen hasierako baluarteak eta ur biltegia, XVII. mendeko gotorlekuak...

PASABIDE DOTOREA

Jatorrizko harresien gainetik altzairuzko eta zurezko egitura bat eraiki da, gazteluaren egituretatik aise bereizten dena. Eraikin berri hau ez da betirako jarri, hau da, edozein momentutan ken daiteke eta gazteluaren izaera osoa mantentzen da.

Lan guztiak auzolanez gauzatu dira, monolitoa eraikitzeke aurreko belaunaldiek egin zuten moduan. Ekimen honetan Aranzadiko 38 kidek eta Amaiurko bertze 35 bizilagunek hartu dute parte udaran eta udazkenean, bakoitzak ahal zuen neurrian. Ondare hau Baztango kultur eta turismo baliabideentzako erreferente bihurtuko da. Hori da martxoaren 7an ospa-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Pasabidearen bizker bestan parte hartu zutenak eta hitza hartu zuten Isaac Rekalde, Juantxo Agirre, Mertxe Aizpurua eta Mikel Ortega.

tuko dutena *Harritik herrira* ekitaldi-jaialdia-

kin, eta euskal herritar guztiak gonbidatu di-

tuzte egun horretan gaztelura joatera.

UDALAK BANATU DITU

Euskara ikasteko eta establezimenduetako errotulazioa euskaraz paratzeko dirulaguntzak

TTIPI-TTAPA

Euskararen gizarte ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko lanildoan, 2014an euskara ikasteko dirulaguntza deialdia egin du Udalak. 2.000 euroko diru-hornidura duen deialdiak, lehen aldiz euskara ikasteagatik dirulaguntza jasotzeko aukera herritar guztiei zabaldu die, ez bakarrik langabetuei. Hala ere, 12 urte bitarteko haurren gurasoak diren edota langabezia dardenen eskaerei bereziki erantzutea (%50eko dirulaguntza handiagoa ematea) aurreikusitako da. Hala bada, aurkezturiko hamar eskaeren arte-

an baldintzak bete dituztenei euskara ikasteko egindako matrikulazio gastuaren %48ko dirulaguntza emanen zaie eta haur txikien gurasoak direnei eta langabezia dardenei gastuaren %72koa.

Bertzalde, 2014an lehenbiziko aldiz, Udalak merkataritza establezimenduetako errotulazioak euskaraz paratzeko dirulaguntza deialdia egin du. Honek ere 2.000 euroko dirulaguntza izan du eta bi eskaera aurkeztu dira.

Akitzeko, Ziburuko Kaskarotenea ikastolari ere 500 euroko dirulaguntza eman dio Baztango udalak.

KULTURA → 'BORTZEKO HAUNDIAN' IZENBURUPEAN

Bertso Eskolaren bosgarren urteurrena ospatuko dute

Hasteko, ortziral arratsean Beira taldearen bertso musikatuak entzungai Erratzuko Zubipuntan

TTIPI-TTAPA

Baztango Bertso eskolak bortsu urte beteko dituela eta zenbait ekitaldi antolatu dituzte, *Bortzeko haundian* izenburupean, Baztango Udaleko Kultura Batzordearen laguntzarekin.

Honela, ilbeltzaren 9an, ortziral arratseko 11tan Beira taldearen bertso musikatuak izanen dituzte Erratzuko Zubipunta ostatuan, Bertso eskolak, Zubipuntak eta Erratzuko Kultur Elkarteak antolatuta.

Ilbeltzaren 17an, larunbat arratseko 9etan bertso afaria prestatuko dute Erratzuko Etxeleberteko Txokoan. Agin Laburu, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegi ariko dira kantari. Erratzuko

Kultur Elkartearen laguntza izan du Bertso Eskolak antolaketa.

Ilbeltzaren 25ean, igande arratsaldeko 7etan bertso trama izanen dute Elizondoko Arizkunenean, Odei Barroso, Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin. Fernando Anbustegi izanen da gai-jartzailea. Euskal Nobela Beltzaren Astearen barrenean antolatu du ekitaldi hau Baztango Udalak.

Ilbeltzaren 30ean, ortziral arratseko 10:30ean, Bi Bala bertso musikatuak izanen dituzte Elizondoko Intza ostatuan. Bertso Eskolak eta Intza ostatuak elkarlanean antolatu dute emanaldia.

Bosgarren urteurreneko ekitaldiekin akitzeko, ilbeltzaren 31n, Gizakunde eguna dela eta Jantziloren epaiketara eta afaria bertsolarietara izanen da aurtengoa Erratzuko plazan eta elkartearen, arratseko 10etatik aitzinera. Baztango Bertso Eskolak, Jo ala Jok eta Erratzuko Kultur Elkarteak antolatu dute ekitaldi hau.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Kotte Plaza Nafarroako Bertsolari txapelketaren final laurdenetan

Otsailaren 7an hasiko diren Nafarroako Bertsolari txapelketaren final laurdenetako txartela lortu du Kotte Plazak. Abenduaren 12an Iruñeko Alegria peñan egingo dako saioan puntuaziorik altuena lortu zuen iruritarrak eta berekin batera, Mikel Lasarte eta Sarai Roblesekin lortu zuten hurrengo faserako txartela.



ARGAZKIA: UZTITAKO ARGAZKIA

Donbassekin elkartasun asteburua

Baztango Askapena eta Ernai erakundeek antolaturik Donbassekin elkartasun asteburua egin zuten abenduaren 12 eta 13an, *Gora herrien erresistentzia, Donbassetik ez dira pasako!* goiburupean. Lehenik *Masacre en Kiev* filma eskaini zuten Erratzuko lixutegian. Biharamunean, Argiako Trebiño kazetariak hitzaldia eskaini zuen Elizondoko Arizkunenea gelan. Hitzaldiak uste baino gehiago iraun zuenez, elkarretaratzerako ordu baten berantarekin egin zen, hitzaldian parte hartu zutenekin (argazkian). Bazkaria lasaiki iragan zen eta urte berrirako saski zozketak antolatu dituzte, diru igorketa egiteko Donbassera.

MENDI
ostatu
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → HAUTESKUNDEEN BEHARRIK GABE

Herrietako alkateak aukeratu dituzte

Zortzi herritan lehengoak segitzen du, sei alkate berri izendatu dituzte eta Oronozen alkate gabe gelditu dira

TTIPI-TTAPA

Baztango herrietako alkate izateko hauteskundeak egin zituzten abenduaren 21ean eta espero bezala, ez zen jendetza handirik bildu batzarretara aukeraketa egiteko. Herri bakar batean ere ez zen hauteskunde beharrik izan, hautagai bakarra aurkeztu zelako. Oronozen, ezta hori ere, hu-

tsean gelditu baitzen kargua.

Hamabortz herrietatik seitan alkate berria izanen dute: Anizen Mikel Azkarate izanen da, Arizkunen Esteban Zaldain, Elbeten Kiko Jaen, Erratzun Koldo Uribeberria, Gartzainen Fernando Dani Arraztoa eta Lekarozen Miren Meoki (emakume bakarra).

Bertze bi urterako alkate izaten segituko dute Almandozko Luis Rolandek (14 urte eginen ditu alkatetzan legealdia akitzerakoan), Amaiurko Isaak Rekal-

dek, Arraiozko Sotero Etxandik, Azpilkuetako Matias Arriadak, Berroetako Kiko Gartxitorenak, Elizondoko Mikel Sobrinok, Iruritako Pello Obregozok (hamar urte beteko ditu karguan) eta Zigako Miguel Mendiburuk.

Oronozen, orai arte alkate izan den Pablo Santervásek kargua uzteko borondatea agertu zuen lan aferak medio, baina ez zen ordeko inor agertu. Beraz, alkatea aukeratzeko bertze batzarre bat egitekoa zuten hilaren 4ean.



Ba al zenekien

Nafarroako sagardotegi denboraldia Lekarozko Larraldean hasiko dela ilbeltzaren 16an eta biharamonean irekiko dituzte publikoarentzat sagardotegiko atea

URTARRILEAN ERE HAINBAT KULTUR EKITALDI

San Anton eguna, musika eta antzerkiz hornitutako hilabetea

TTIPI-TTAPA

Urtea indartsu hasteko hainbat kultur ekitaldi izanen dira ilbeltzean. Baztango bertso eskolaren 5. urteurrenaz eta hilabete hondarreko Euskal Nobel Beltzaren Asteaz gain, San Anton Eguna ospatuko dute. Larunbat goizeko 11etan zopak banatuko dira, eguerdian bertsolariak ariko dira kantari eta 13:00etan zozketa eginen da, Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen alde.

Aitzinetik, ilbeltzaren 11n, igande arratsaldeko 7etan Kherau taldearen folk akustikoa aditzeko aukera izanen da Arizkunenean.

Ilbeltzaren 18an, Atx Teatroa taldearen *Emeen sotoa eta arren ganbara* antzezlanak ikusgai izanen da Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan hasita.

Idazleekin solasean ekimenaren baitan, *Heren-suge gorriaren urtea* liburuari buruz Eneko Aizpuru egilearekin solasteko aukera izanen da ilbeltzaren 21ean, asteazken arratsaldeko 7etatik aitzinera Anizko elkartearen.



UTZITAKO ARGAZKIA

AEK eta Xaloa TBren arteko hitzarmena

AEK-k 2.000 euroko ekarpena eginen dio Xaloa Telebistari, Iruñerrian abian jarri duen euskarazko telebistaren aldeko kanpaina dela-eta. Xaloa Telebistak euskahalduntzen jarraitzea erabaki eta hitzarmena sinatu du Korrika 19rekin, euskararen aldeko ekimen erraldoia bultzatzen lagundu eta haren jarraipen berezitua egiteko. Xaloa Telebistaren Iruñerriko emankizuna ahalbideratuko duen tresneria ordaintzeko beharrezko diru bilketa ere ongi burutu zen. Telebistak 50.000 euroko inbertsioa egin behar du multiplex delako emisorea eta seinalea Iruñerri osoan barreiatzeko bi errepikagailu ezartzeko eta kopuru hori gainditu zuen *crowdfunding* kanpainen, 53.760 euro lortuta (abenduaren 23an).



UTZITAKO ARGAZKIA

Asteburu batean hamar basurde bota dituzte Arraiozen

Abenduaren 13-14koa asteburu emankorra izan zen Arraiozko ehiztarientzat. Larunbatean bakarra hil zuten eta igandean, berri, bederatzik basurde hil zituzten. Beraz asteburu borobila izan zuten Arraiozko ehiztariek!

GIZARTEA → %30A UDALAK ORDAINDU BEHARKO DU

Uholdeek kaltetutako azpiegituren konponketak ez dituzte akitu

Emergentziako lanak bakarrik egin dira eta oraindik ez da Gobernuaren laguntzarik ailegatu

TTIPI-TTAPA

Uztaileko uholdeek kaltetutako Baztango azpiegituren konponketak akitu dituztela aipatu dute Nafarroako Gobernutik, baina Garbiñe Elizegi alkateak adierazitakoaren arabera,

«bakarrik emergentziako lanak akitu dituzte eta Gobernuak hitz emandako 990.478 euroko dirulaguntza ez da oraino (abenduaren 18an) Udalera ailegatu».

Diru hau hitzemana dela eta ailegatuko dela uste du alkateak, baina 800.000 euro inguruko aurrekontua duten bertze lanak egin gabe daude eta horren finantziazioa zailagoa ikusten du. Gainera gogoratu du Nafarroako Gobernuak emergentzia lanetarako emandakoa la-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuo eta udaleko ordezkariak, Elbeteko errotako zubian.

nen %70 bertzerik ez dutela estaltzen eta gainerako %30a, 400.000 euro inguru, Udalak ordaindu beharko duela.

Nafarroako Gobernuo Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko kontseilari José Javier Esparak jarduera horiek bisitatu zituen abenduaren 16an, alkatearekin batera. Obrek 1.419.998 euroko aurrekontua zuten eta kopuru horretatik Nafarroako Gobernuak 990.478 euroko di-

ru-laguntza emanen du.

Lanak harri-lubeten hormetan egin dira, arekak sendotu, garbitu eta eraikitzen eta fabrikako obrak berrezartzen, honako leku hauetan: Larretakoborda, Dorretxipikoborda, Kastonekoborda, Malkoa zubia, Aritzakun-Urritzate, Apate zubia, Mapitxenborda, Elizondo-Elbete zubia, Arraiozko zubia, Maxaborroborda, Zelaietakoborda, Bear-tzun, Gamiokoborda, Gorramendi-Estebene-

koborda, Anitz zubia eta Lekueder zubia.

ELBETEKO ZUBIA

Astearte goizean bisitatutako lanetako bat Elbeteko errotako zubia da. Uholdeek kalte handiak eragin zizkion, eta berriz eraikitzeko ibilgua desbideratu behar izan zen atagiak jarriz. Ezkerreko eta erdialdeko begietako gangetako harlangaitz-horma ere eraitsi da, hormigoi armatuko zola eta petrilak barne.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 10EAN

Jokin Etxart izanen da Fabaren Errege

Abenduaren
13an egin
zuten
aukeraketa
Gauñara
elkartean

TTIPI-TTAPA

2015ko Fabaren errege-erreginaren aukeraketa egin zuten abenduaren 13an Urda Zubiko Gauñara elkartean. 10 urtetik 12 urte bitarteko herriko hamarneska-mutikoan artean egin zuten aukeraketa eta Axulargaineko Jokin Etxart-i suertatu zitzaion urtarrilaren 10eko ekitaldian errege eginen duen baba.

Axulargainekoarekin batera, Aritzaldeko Lorena Arozarena, Azkainttikiko Aitor Elizalde, Donpedroneko Janire Agerre, Erramuondoko Zuhaitz Bazterrika, Nikolaurenko Leire Gomez, Oihanondoko Oihana Parisis, Olaberriko Maialen Jaurena, eta Txarrantxetako Enara Ariztia eta Laida Ariztia izan ziren hautagaiak, baina ez zuten halako suerterik izan.

Abenduaren 13ko ekitaldia alkatearen on-

gietorriarekin eta Muthiko Alaiak elkarteko kide baten agurrarekin hasi zen. Segidan Armen Errege papera eginen duen Fernando Hualdek besta honen eta hautaketaren unearen esanahia azaldu zituen. Festaren irudiak ikusi zituzten bideo batean eta erroskoa zatitu zuten. Jokin Etxart-i suertatu zitzaion erregearen baba. Herriko bizilagun eta umeak ospakizunaren pausu guztiak ezagutu ditzaizen dokumentazioa eta komiki bat ere banatu zuten beraien artean.

Mende erdia da Iruñeko Muthiko Alaiak elkarteak Nafarroako erregeen tradizioko Fabako errege ibiltari festa ospatzen duela Nafarroako herrietan eta urtarrilaren 10ean Urda Zubik hartuko du festa hau.

URTARRILAREN 10EKO EGITARAUA

Larunbateko Faba Erregearen besta eguerdian irakurriko den pregoiarekin eta dantzarien eta joaldunen saioekin hasiko da. 18:30ean desfilea eginen dute eta 19:00etan koroatze zeremonia.



ARGAZKIA: ALFIL COMUNICACION

Herriko neska-mutikoak, errege edo erregin eginen duen baba zeukan erroskoaren parean eta Jokin Etxart izendapena aditzen.

ABENDUAREN 16AN

Inpaktu sismikoari buruzko estudioa egiteko leherketak burutu dituzte Alkerdiko harrobian

TTIPI-TTAPA

Alkerdiko harrobian leherketak egin zituzten abenduaren 16an. Nafarroako Gobernuak inpaktu sismikoari buruzko estudioa egitea eskatu zion Marmoles Baztan enpresari eta leherketak horretarako dituzte.

Estudioa Kantabriako Unibertsitateari eskatu zaio, unibertsitate honen Altamirako lezei dagozkion neurketak ere eginen baititu. Marmoles Baztan enpresatik jakinarazi

dutenez, zenbait leherketa kontrolatu egin dituzte, lehergailu kopuru ezberdinekin, harrobi inguruan duen eragina neurtzeko. Principe de Viana erakundeak, harrobiaren lanak inguruko lezeetan duen eragina ezagutzeko egindako bertze ikerketa bat osatzen dute lan hauek. Bi informe hauekin, harrobiaren jardura eta inguruko ondarea babestea bateragarriak ote diren jakinen dute.



POSADA OITZ

Nagusia 1 OITZ
T. 948 451 951 · 948 450168
www.posadaoitz.com



GIZARTEA → EUSKAL HERRIKO BERTZE 7 ELIZAK ERE IZENDAPEN BERA UKAN DUTE

Jondoni Petrikari eliza monumentu historiko izendatu du Frantziako Kultura Ministeritzak

Dirulaguntza gehiago biltzen ahalko da zaharberitze lanak egiteko

Franck DOLOSOR

Senpereko Jondoni Petrikari eliza monumentu historiko izendatu du berriki Kultura Ministeritzak 8 urteko prozeduraren ondotik. Herriko otoitz leku nagusia kultur tokia ere izanen da beraz hemendik goiti. Ipar Euskal Herriko bertze 7 elizak ere izendapen bera ukan dute: Itsasun, Kanbon, Ezpeletan, Baigorriin, Luhuson, Jatsun eta Angelun Anderedena Maria elizak hain xuxen. Izendapen huni esker dirulaguntza gehiago biltzen ahalko da zaharberitze lanak egiteko, bereziki galerietan segurtasunaren aldetik, %75-80 inguru. Eliza hauen inguruan babes-berriak diren guneak sortu dira, eta beraz, «Jainkoari esker» ezin izanen



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Artxeroak taldea ere agertu da ETBko emankizunean.

dira nola nahiko lanak egin otoitz leku guzietan horien inguruan 500 metrako eremuan.

Istripu sail iluna

Azken egun hauetan ezbehar ilun frango izan da Senperen. 54 urteko laborari batek bizia galdu du istripu baten gatik. D.L. biziki ezagutua zen herrian eta inguruetan, Sarako lagunek atsekabez hartu dute bere heriotzaren berria kaltetun laborariak lagundu zituelako ber-

tzeak bertze. Azkainen gogoan dute laguntza baliosa eman zuela Pastore Lore pottoka eta hazleen bestak apailatzeko. Egun batzuk lehenago 66 urteko sarratar batek bizia galdu zuen bi autok elgar jo zutelarik Senpereko oiharetik ateratzean Arbona eta Arrangoitzerat buruz. Toki berean bertze bi istripu gertatu dira berriki baina orduan ez da nehor kolpatu. Garai hauetan gainerat urtea betetzen da 12 ur-

teko mutikoa zendu zela Helbarrunen autobatek jo zuelarik bidea zeharkatzen zuelarik.

Biribil haurrentzat

Biribil izeneko 13 ipuinen bilduma diska eta liburua plazaratu du Josiane Aguerre Valenciak, Azkaineko eskola girixtino elebidunean irakasle den senperrak. Ikas pedagogia zentroak argitaratu du gure herritarrak osoki asmatu duen bilduma hau haurrak laguntze-

ko eskoletan eta ikasgeletatik kanpo ere. Heziketa tresna berri huen bitartez gaztetxoek adierazpena lan dezakete euskaraz eri jokoen bitartez bertzeak bertze. Ama eskoletan eta lehen hezkuntzan erabil daiteke Biribil eta jadanik eskuratu dutenek diote euskarri paregabea bezain baliosa dela, ikasteko jostatzuz!

Herriko kantariak ETBn

Ipar Euskal Herri oso-ko artista aintz kantuz aritu ziren urriaren 26an Larreko kultur gunean Zaldubi ikastolaren alde. Boz asko preziatu ahal izan zen kantaldi hortan, hauen artean Magali Zubillaga, Izarrak, Maddi Zubeldia, Artxeroak, Amaia Rioupeyrous eta Erramun Martikorenarenak bertzeak bertze. Abenduaren 27an ETB1n agertu zen kantaldi hau Ilaski Serranok aurkezturik eta orain sarean ikus liteke eitb.eus atariko nahiera sailean.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA



Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km
URDAZUBI

ORBELA
SENDERISMOA · ALBERGUESNAVARRA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

TXOTX DENBORALDIAREN
IREKIERA:
URTARRILAK 18



ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

SARA

GIZARTE → ABENDUAREN 21EAN

Denbora txarrak Telethon eguna zapuztu du baina ez du elkartasuna eten

2.000 euro bildu dira herrian

Joana GERENDIAIN

Aurten, denbora txarra zela eta, jende gutti hurbildu da Larrunera igotzeko Telethonarentzat 45 pertsona eta 30 krakadarentzat. Hala ere saratarrek esku zabala izan dute 2.000 euro bildu baitira.

Joko berri

Urtarrilaren 5etik apirilaren 18ra joko berri txapelketa antolatua da polikirolegian.

Mus txapelketa

Herriko etxeko edantegiko mus txapelketa urtarrilaren 16an hasiko da. Partidak ostiral arratsez egi-

DATUA

500

EUROKO

saria irabaziko du Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketako bikote irabazleak.

nen dira. Izena emaiteko ostatura deitu behar da: 0559542466. Izen ematea pertsonako 10 eurokoa da, eta lehen saria 500 eurokoa da. Beti ere herriko etxeko edantegian, urtarrilaren 24an larunbatarekin, Euskal Herriko mus txapelketako partidak jokatu dira arratsaldeko 5etan.

Kirol emaitzak

Abenduaren 6-7ko asteburuan esku baloian, 11

urtez azpiko ekipak 14-6 irabazi du Bordes-eko ekiparen kontra, 13 urtez azpikoek galdu dute 29-7 Nafarroaren kontra, 15 urte azpikoek 19-9 irabazi dute Bokaleren kontra eta Seniorrek 28-8 irabazi dute Larrens-en kontra.

Abenduaren 13-14ko asteburuan, 11 urtez azpikoek galdu dute 19-8 Lucqde-Bearn-en kontra, 13 urtez azpikoek 18-14 galdu dute Bokaleren kontra, 15 urtez azpikoek irabazi dute 19-17 Baionaren kontra, 18 urte azpikoek irabazi dute 19-16 Benejacq-en kontra, eta seniorrek berdinketa lortu dute 29-29 Bosdarrosen kontra.

Errugbian Basurdeek 10-3 irabazi dute Amou-ko ekiparen kontra.

Rekordatorioak
egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458



Karmelo LARRALDE OTXOTeko

Momentu on eta txarrak pasa ditugu, baina zure armonika doinuekin denak alaitzen zenituen. Atatxi izugarria izan zara, bai aita eta bai senar. Eskerrak eman nahi dizugu egin duzun guxtiarengatik. Beti gure bihotzean egonen zara, atatxi, atta, Karmelo...

Junkal, Kontxita, Angel, Dolores, Eusebio, Begoña, Juanito, Naroa, Jose, Uxue, Urko, Idoia, Eneko, Nahia

Egun gogor hauetan gure ondoan egon zareten guztiei eskerrik asko



Pedro TELLETXEA ZOZAIA

Etxalarren, 2014ko abenduaren 15ean

Zure begien dizdira eta expainetako irria beti gurekin egonen dira, atatxi maitagarria.

ZURE ETXEOAK



Miguel Angel ALZUART ETXAIDE

Arizkumen, 2013ko abenduaren 23an

I. URTEURRENA

Baratzean lana bada zu bertan lanean, harya! guk zurekin eginak ditugu hainbertze algara orain joan egin zara mundu berri horretara naitz eta orain ezin ikusi batera egonen gara..

ETXEOAK



Santiago AIESTARAN TAPIA

Lesakan, 2014ko azaroaren 27an hil zen

Udazkeneko usoen antzera joan zara eta gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

 Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425



kukuka
HARA ARROPA BERRA

MERKEALDIA

www.kukukahaurarropadenda.com

HERIOTZAK

Estefania Hardoy Gurrutxaga, Urdazubikoa, abenduaren 5ean, 89 urte.
Javier Irigoien Elizalde, Elgorriagan, abenduaren 7an, 82 urte.
Antonio Etxeberria Telletxea, Igantziakoa, abenduaren 8an, 86 urte.
Juan Manuel Magirena Sarratea, Zigorriakoa, abenduaren 9an, 67 urte.
Carmelo Larralde Otxoteko, Lesakakoa, abenduaren 14an, 92 urte.
Dominica Salaburu Irungarai, Erratzukoa, abenduaren 15ean, 86 urte.
Carlos Sanjurjo Lizardi, Lesakakoa, abenduaren 15ean, 74 urte.
Pedro Telletxea Zoziaia, Etxalarkoa, abenduaren 15ean 79 urte.
M^a Angeles Altzugarai Zabaleta, Nartekoa, abenduaren 16an, 89 urte.
Francisca Arburua Elizagoien, Etxalarkoa, abenduaren 16an, 91 urte.
Lukas Etxeberrigarai, Sarakoa, azaroaren 15ean, 48 urte.
Marguerite Fagoaga, Sarakoa, azaroaren 28an, 85 urte.
Sabina Etxeberri, Sarakoa, azaroaren 27an, 90 urte.
Ttote Delpeche, Sarakoa, abenduaren 9an, 66 urte.
Rufino Agirre Gogorza, Leitzakoa, abenduaren 17an, 88 urte.
Pepa Larretxea Taberna, Lesakakoa, abenduaren 18an, 91 urte.
Maria Visitación Agesta Indakotxea, Doneztebekoa, abenduaren 18an.
Santiago Arizaleta Etxeberria, Arizkungoa, abenduaren 19an, 78 urte.
Juan Tomas Mutuberría Telletxea, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 20an, 81 urte.
Martin Indaburu Irisarri, Etxalarkoa, abenduaren 21ean, 88 urte.
Francisco Mitxelena Etxebeste, Arantzakoa, abenduaren 22an, 74 urte.

EZKONTZAK

Beñat Etxenike eta **Matixa Beturne**, Zugarramurdi eta Ustaritzekoa, abenduaren 12an.
Unai Perales Escudero eta **Amaranta Buforn Igea**, Agoitz eta Lesakakoa, abenduaren 2an Lesakan.
Jon Iturbide Otxoteko eta **Uxue Rojo Pozueta**, Lesaka eta Iruñekoa, abenduaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Telmo Zubilaga Urreta, Aresokoa, abenduaren 18an.
Maddi Agirresarobe Etxeberria, Leitzakoa, abenduaren 2an.
Mattin Juanena Maskotena, Urdazubikoa, azaroaren 8an.
Araia Alava De Carlos, Lesakakoa, abenduaren 8an.
Kattalin Mindegia Aranburu, Lesakakoa, abenduaren 11n.
Aimar Elizondo Uterga, Doneztebekoa, abenduaren 5ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Luis ETXEGARAI MARTIKORENA
Berakoa, 2013ko urtarriaren 6an
II. URTEURRENA

*Bi urte pasa dira
ixil ixilean joan zirela
argi bat itzali zen hemen
huts haundi bat utziz
bizi garen artean
ez zaitugu ahartzuko*

ZURE GURASO ETA SENIDEAK



Juanito MAGIRENA SARRATEA
Zigorriakoa, 2014ko abenduaren 9an hil zen

*Senar eta aitatxo maitea,
Hain zinen solasduna
eta utzi gaituzu ixiltasunean,
Zure joanak min egiten digu barrenean
Eskermille gugatik egin duzun guziagatik
Beti izango zaitugu gure bihotzean.*

ZURE FAMILIA



Josetxo GRAGIRENA eta Rosa Maria JUANENA
2009/12/11 - 2009/12/16
V. URTEURRENA

*Ailetu zaigu negua
eta honekin batera zuen urtemugak
jadanik bost dira urteak
hala ere, oroitzapenez beteak
ezin bete zuek utzitako hutsuneak
hotzak daude gure etxeak.*

Beti egonen zarete etxeoen bihotzetan.

ZUEN FAMILIA

PILOTA → ABENDUAREN 13 ETA 14AN ARANTZA ETA BERAKO PILOTALEKUE TAN

Bortzirietako eskuz binakako XIV. txapelketako finalak jokatu ziren

51 bikote aritu dira lehiari 8 kategoriatan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz binakako 14. pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 13an Arantza eta 14an Beran.

Arantza, **Ttikien** kategorian, Txarutako Arkaitz Goienetxe eta Oier Primek 18 eta 4 irabazi zieten Lesakako Arkupeko Unax Bereau eta Aimar Otxandorenari.

Umeak B kategorian, Arkupeko Josu Etxepeteleku eta Oihan Urrozek 18 eta 15 irabazi zieten Irungo Beñat Bertiz eta Gure Txokoako Koldo Lakarri.

Umeak A kategorian, Arkupeko Oihan Etxeberria eta Beñat Etxabidek 18 eta 5 irabazi zieten Irungo Aritz Etxebeste eta Henda-



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Txapelketako finalistak eta bertze partehartzaile batzuk.

iako Markel Bertiz-i.

Berako Eztegarra pilotalekuan, **Kimuak B** mailan, Etxalarko Altxatko bi bikote izan ziren aurrez aurre eta Aiert Irigoien eta Unai Arburuak 18 eta 9 irabazi zieten Markel Etxarte eta Koldo Bizenterri.

Kimuak A mailan, berriz, gipuzkoarren arteko finala jokatu zuten eta Oiartzungo Ekain

Sein eta Xabier Aburuzak 18 eta 9 irabazi zieten Irungo Iker Amiano eta Unai Amiano anaiei.

Haurrak kategorian, Txarutako Oier Ariztegi eta Asier Bailarenak 18 eta 3 irabazi zieten Oiartzungo Ekaitz Salaberria eta Ion Iñarrari.

Kadete kategorian, Oiartzungo Oroitz Sein eta Ekain Etxeberria 18 eta 9 irabazi zieten Ar-

kupeko Jonan Fagoaga eta Beñat Ordoki lesakarrei.

22 urtez behetiko finalean, azkenik, Gure Txokoako Andoni Lazkanotegik eta Arkupeko Jon Olaizolak 22 eta 17 irabazi zieten Igantziako Biltokiko Oian Canabal eta Gure Txokoako Iñigo Martinez-i, partida orekatu eta gogor baten ondotik.

140 BIKOTE

Malerrekako eskuz binakako XIII. txapelketa ere hasi da

TTIPI-TTAPA

Zazpi kategoriatan banatutako 140 bikote hasi dira Erreka elkar-teak hamahirugarren urtez antolatutako Malerrekako eskuz binakako txapelketan, otsailaren 21ean Donezteben jokatu diren finalerako txartelaren bila. Hasten lehenbizikoak senior elite mailakoak izan dira, urtarrilaren 7an jokatu baitituzte lehen kanporaketak Donezteben. Bigarren mailako seniorrek urtarrilaren 14an jokatu dituzte lehen partidak Sunbillan.

Kategoria tikiagoko gehienak urtarrilaren 11n, igande honetan hasiko dira: Jubenilak Donezteben, kadetak Sunbillan, infantilak Lesakan eta alebina Iruritan. Benjamin mailakoak, berriz, urtarrilaren 18an hasiko dira Eratsunen.

PILOTA → ABENDUAREN 21EAN ELIZONDON

Baztango 33. binakako txapelketaren finalak ere jokatu dituzte

144 pilotari aritu dira zazpi kategoriatan

TTIPI-TTAPA

Txaruta elkar-teak antolatutako Baztango XXXIII. Eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 21ean Elizondon. Denetara 144

haurrek hartu dute parte, horietatik 35 baztandarrak. Gainera, Nafarroa, Gipuzkoa, Errioxa eta Bizkaiko pilotariak ere izan dira.

Umeak B mailako finalean, Andde Maritoren beratarrak eta Oihan Etxeberria lesakarrak 18-12 irabazi zieten Errenteriko Eneko Lizarazu eta Iraitz Goi-

koetxeari.

Umeak A mailan, Paz Zigandako Asier Maiza eta Tasio Retegik 18-9 irabazi zieten Barañingo Jon Nazabal eta Haritz Salcedori.

Kimuak B mailan, Baraibarko Julen Ezkurdia eta Oinatz Iriartek 18-10 irabazi zieten Leunberriko Hodei Ijurko eta Iker Ortiz-i.

Kimuak A mailan, Oiartzungo Ekain Sein eta Xabier Aburuzak 18-16 irabazi zieten Paz Zigandako Adrian Azpizroz eta Iker Ibarrari.

Haurrak B mailan, oiartzuarren arteko finalean, Ekaitz Salaberria eta Oier Etxabek 18-11 irabazi zieten Beñat Leonet eta Jon Iñarrari.

Haurrak A mailan, Javier Bobadilla errioxarrak eta Arbuziko Borja Ganboak 18-7 irabazi zieten Axiar Ballarena elizondarrari eta Oier Ariztegi lekaroztarrari eta kadete mailan, azkenik, Lesakako Jonan Fagoaga eta Beñat Ordokik 22-13 irabazi zieten Julen Albisu eta Aitor Aldazabal donostiarrei.

PILOTA → BINAKAKO ERREMONTE TXAPELKETA

Osaba-loben arteko lehian zaharra garaile

Koteto eta Ionek 40-35 irabazi zieten Ezkurra II eta San Migueli

TTIPI-TTAPA

Koteto Ezkurra eta Ionek irabazi dute binakako erremon-te txapelketa, abenduaren 20an Galarretan jokaturako finalean Josetxo Ezkurra eta Julen San Miguel donetztebarrei 35-40 irabazi ondotik. Hortaz, osaba-loben arteko lehian zaharra nagusitu zen eta Kotetok binakako laugarren txapela jantzi zuen, 1994, 1999

eta 2006an lortutako ondotik.

Bi zati arras ezberdin izan zituen finalak. Lehenbizikoan Koteto eta Ion jaun eta jabe izan ziren eta horri esker, buelta ezina zirudien markagailua lortu zuten (14-29). Baina dena galdua ikusi zutenean libratu ziren Ezkurra II eta San Miguel eta markagailua estutzea lortu zuten. Julenen sakean oinarrিতා lau tantura ere hurbildu ziren (26-30), Ezkurra II ere defentsan bikain ibili zelako. Baina buelta sinestezina gauzatzea posible zela zirudienean, Kotetorik onena agertu zen eta



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Ezkurra II, San Miguel, Ion eta Ezkurra, honen bi semerekin podiumean.

tantu bikainak lortu zituen hormabikoekin. Berriz ere 29-36 eta 32-38 ihes egin zuten urdinek. Gorriek 35-38ra hurbiltzea lortu zuten, baina azken bi tantutan, pilota bana galdu zuten San Miguelek eta Ezkurra II.ak.

Finaleko onenaren saria Koteto Ezkurrak jaso zuen, Tomas Rekondo Lesakako bere betiko jarraitzailearen eskutik. 21 tantu egin

zituena eta 3 pilota galdu. Ionek ere partida sendoa egin zuen, 5 tantu egin zituen jokoan eta 4 sakearekin. Piloteoan 3 pilota galdu zituen eta bertze bat sakearekin. Ezkurra II urduri hasi zen, baina goiti egin zuen eta azkenean 10 tantu egin zituen eta 6 pilota galdu. San Miguelek 12 tantu egin zituen piloteoan eta 6 sakearekin eta 5 pilota galdu zituen.

Kotetok aipatu zue-nez, «finaletan dena eman beharra daukazu, ideia garbiekin hasi gara eta San Miguelek ez zidan pilotarik kentzen sakearekin eta hori aitzinean aritzeko aprobetxatu dut». Gorriak hurbildu zirenean ere ez zen urduri jarri, «San Miguel hobe sakatzen hasi da, belaunean kolpea hartu dut eta zail jarri da, baina gure aukerak aprobetxatu ditugu».

PILOTA → ABENDUAREN 20AN JOKATU ZEN FINALA

Irurita Ek irabazi du aurten paxaka txapelketa

9-3 nagusitu zitzaion Elizondori

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 20an jokatu zituzten hamabosgarren paxaka txapelketako hondar partidak Irurritako Aranabia pilotalekuan. Final nagusi-

an, Irurita Ek (Oskar Urrutia, Joxe Mari Salaburu eta Egoitz Prim) 9-3 irabazi zion Elizondori (Gorka Urtasun, Juan Mari Maia eta Jon Sansiñena). Txapel-dunak beti aitzinetik izan ziren (3-0, 3-2, 8-2, 8-3, 9-3).

Hirugarren posturako lehian, Irurita Ek ere



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Txapeldunak, txapeldunordeak, antolatzaileak eta laguntzaileak, Irurritako alkatearekin.

(Iñaki Etxandi, Mikel Ballarena eta Jagoba Ramos) 9-3 irabazi zion Irurita Bri (Xabier Barbarena, Cesar Iñarrea eta Xabier Bazterrika).

Txapelak eta sariak Peio Obregozo Irurritako alkateak eta Jon Apeztegia eta Laura

Apeztegia zozketako kolaboratzaileek eman zituzten.

Hain zuzen, finalaren ondotik 1.000 euroren zozketa egin zen eta 0754 izan zen zenbaki sariduna. Elizondoko ferrietan saldu omen zen eta txartelaren jabeak

abenduaren 31 bitarteko epea zuen saria eskuratzeko. Zenbaki saridun hau agertuko ez balitz, ordezko zenbakia ere atera zuten (0365). Honen jabeak urtarriaren 10a bitarteko epea izanen luke saria eskuratzeko.

**ALMANDOZ, Estitxu**

Euskadiko harrijasotze txapelketan bigarren izan zen lesakarra eta herriko ferietan 100 kiloko kopa harriarekin marka pertsonala egin zuen, 17 altxaldirekin.

AMAIUR

Sokatira taldeak Nafarroako lau txapelketa irabazi du bi kategorietan. Zortzikoa, aldiz, azpitxapeldun izan zen Beti Gazteren ondotik.

ANTSO, Enaitz

Euskal Herriko klub artekoan kadete mailako txapeldun suertatu zen oronoztarra, Burlatako Zugarraldeko Iosu Eskirozekin bikote eginez.

ARIZTEGI, Maika

Kasik urtero agertzen da Iturengo kirolaria zerrenda honetan, kirol batean ez bada bertean. Ingude altxatzen, Nafarroako eta lehen aldiz egin den Euskadiko txapelketa irabazi ez ezik, marka ere egin zuen (93 altxaldi).

ARRETXE, Asier

Narbarteko errugbilaria Ohorezko Mailako Ampo Ordizia taldearekin aritu da. Euskal selekzioaren deia ere jaso zuen. Menditarrak BRT taldera itzuli da.

BARRIOLA, Abel

Hainbat urtez punta-puntako pilotaria izan eta buruz buruko eta lau terdiko txapelak irabaziak izan arren, binakakoa falta zuen. Irujorekin batera lortu zuen, Olaizola II eta Aretxabalari finalean irabazita.



Nafarroako eta Euskal Herriko Herriarteko txapelketak irabazi ditu Berak.

BERA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa bigarren irabazi zuen Berak (aitzinekoa 1979an lortu zuen), uztailaren 5ean Labriten Uharteri irabazita. Uztailaren 26an Euskal Herriko Herriartekoa irabazi zuen lehen aldiz, Atano III.ean Donostia menperatuta. Herriko bestetan udalaren omenaldia jaso zuten pilotariek.

BERGARA, Ane

Azkeneko lau urteotan Donostiako Real Sociedad taldean ari den futbolari beratarrak Espainiako selekzioaren deia jaso du eta aurten Kanadan jokatu den Munduko txapelketan parte hartzeko aukera izan dezake. Europako txapeldun izana da.

BETI GAZTE

Munduko txapeldun izan diren beteranoen eta gazteen nahasketarekin Nafarroako zortzinakako sokatira txapelketa irabazi du Lesakako sokatira taldeak, jokaturako bi kategoriatan. Orain, Euskal Herrikoan parte hartzeko prestatzen ari dira buru-belarri.

DONEZTEBE

Baztan-Errekako laxoa txapelketa hemeretzigarren aldiz irabazi du Doneztebek, abuztuaren 2ko finalean Iruritari 9-5 irabazita Oizen. Pascual Bertiz sakalaria, Koldo Legarra numeroa eta Jokin Arraztoa (finaleko onena izendatu zuten) eta Javier Bertiz koartoa aritu ziren talde txapeldunean.



ERRANDONEA, Ander


Taldea Nafarroako eta Euskal Herriko txapeldun izateaz gain, bakarka ere txapel ugari jantzi ditu pilotari beratarrek. Euskadiko klub arteko txapeldun izan zen, gazte mailan buruz buru eta Nafarroako 22 urtez beheitiko buruz burukoan 18-13 irabaziz Jon Olaizola lesakarrari. Binaka ere hainbat txapel lortu ditu.



Beti Gaztek irabazi du Nafarroako zortzinakako sokatira txapelketa.

ERREKA

Doneztebeko elkarteak triatloi taldea atera du, baita lehenbiziko garai-penak lortu ere. Mendi Egunean Dennis Urubeko mendigoizale ezaguna ekarri zuten.



ETXEBERRIA, M. Angel

Nafarroako hirugarren mailako aizkolaria txapelketa irabazi zuen Beintza-Labaiengoak abuztuaren 17an Ezkurran jokaturako finalean. Zubitako Mikel Indakoe txea azpitxapeldunarekin batera, bigarren mailan ariko da aurten.

ETXEGARAI, Fernando

Hainbat mendi lasterketetan punta puntan ibiltzeaz gainera, Nafarroako koxkor biltze txapelketa hamaseigarren aldiz irabazi du.

ETXENIKE, Xabi

Euskadiko junior mailako pisu jaurtiketa txapelketa irabazi zuen Irungo Txingudi taldean atletismoan ari den 18 urteko lesakarrak, 12 metro eta 19 zentimetroko jaurtiketarekin.

FAGOAGA, Itsaso

Skeet Olinpikoan Espainiako Kopa irabazi zuen zazpigarren aldiz, errekor berria eginez.

IBARGARAI, Xabi

Munduko buruz buruko pala txapelketaren finalera ailegatu zen Erratzuko pilotaria, baina galdu egin zuen Pablo Fusto argentinararen kontra.

LARRALDE, Joseba

Bere lehen partehartzetan Nafarroako Kopa irabazi eta proba burutu zuen korrikalaririk gazteena izan zen Berako Manttaleko korrikalaria. Proba hau burutzen duen kirolaririk gazteena ematen zaion Luis Mari Pikabea saria ere irabazi zuen.

LATASA, Zaira

Espainiako kenpo kai txapelketa irabazi zuen elizondarrak, gerriko marroi eta beltzei zuzendutako emakumezkoen txapelketa nagusian.



MAIORA, Maite

800 Dukado lasterketa antolatu zuten Sunbilla eta inguruko herrietan. Lehen aldiz emakumeei bakarrik zuzendutako Mendi Maratoia Mendaroko korrikalariak irabazi zuen, baina 400 emakumek parte hartu zuten distantzia ezberdinetan.



MARIEZKURRENA, J.

Hamabi denboraldiren ondoren, Europako kamioi zirkuitoei adio erran diete Doneztebeko pilotoak eta Ederki taldeko taldeak.



Asier Olaizolari omenaldia egin zioten Goizuetan.

MITXELENA, Luciano

Euskal Herriko master mailako txirrindularitza txapelketa irabazi zuen Transbidasoa-Euromaster taldeko lesakarrak, master60 kategorian. Ion Zeberio elizondarra azpitxapeldun izan zen master30ean.

OLAIZOLA, Asier

17 urteko ibilbidea eskertzeko omenaldi handia egin zioten Goizuetako pilotariari sorterritan, 600 lagunek pilotalekua lepo betetzen zutela. Eskuz binakako bi txapel irabaziak ditu. Garferekin darrai orain, bigarren lerroan.

OLAZAR, Patxi

Etxeberría IV. arekin bikote eginez Nafarroako erremonete txapelketa irabazi du atzelari doneztebarrak. Bi herritarri, Ezkurra II eta Julen San Migueli irabazi zion finalean.

OLLIVON, Charles

Baionako Aviron taldean ari den errugbilari senpentera Frantziako selekzioaren ikastaroetan aritzeko hautatu dute. 21 urte, 2 metrako garaiera eta 110 kilo dituen senpentera pozik eta harro dago sailkatua izateaz.



RETEGI, Julen

Lehel aldiz, buruz buruko pilota txapelketa nagusiaren finala jokatu zuen aurrelari eratsundarrak. 22-9 galdu zuen Irujoren kontra, baina Julian aitaren eta Julian Ignacio aitaren osabaren bidea segitu du Retegi Bik.

SAN MIGUEL, Julen

Buruz buruko erremonete txapelketaren finalean bitan ailegatua zen doneztebarrak eta bietan galdu egin zuen. Irailaren 6ko finalean, aldidiz, 19-30 irabazi zion Urrizari. Duela 13 urte hildako amari eta hurbilekoei eskaini zion.



SOUZA, Xanta

Euskadiko txingara eramate txapelketa irabazi zuen lesakarrak Barakaldon, errekorra hobetuz. Ondotik, herriko ferietan, oraindik marka hobea egin zuen (50 plaza eta 17 metro).

URTASUN, Gorka

Eguberrietako frontoi laburreko buruz buruko txapelketa laugarrenez segidan irabazi zuen Iruiritako erremontelariak. Urtarrilaren 4ko finalean 30-21 irabazi zion San Miguel-i.

ZIGANDA, J. Joakin

Oizko Gartzineko laxoa pilotari historikoa omenatu zuten maiatzaren 25eko Laxoaren Egunean. Laxoa txapelketa bortz aldiz irabazi da eta bertze bortzetan azpitxapeldun izana.



Joxe Joakin Ziganda omendu zuten Laxoaren Egunean.

urtarrilak 8 - 22

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eu edo 948 63 54 58

Hitzaldiak	Mendia	Ospakizunak
 <p>LESAKA 2015.01.30 Carlos Gonzalez pediatra ezagunak hitzaldia emanen du <i>Umeen maitasun beharraz ariko da pediatrian doktorea den eta haurren haziera, elikadura eta osasunari buruz hainbat liburu idatzi dituen pediatra ezaguna.</i></p>	 <p>BERA 2015.01.10 Zortzigarren aldiz Mendi Eguna antolatu dute Beran 2007an Taillon mendian hil ziren Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi gogoan, Mendi Eguna egingen dute larunbatean. Tartean Santa Barbarara Igoera.</p>	 <p>URDAZUBI 2015.01.10 Fabaren Erregearen besta Urdazubin egingen da 12:00etan pregoia, dantzariak eta joaldunak izanen dira eta 18:30ean desfilea egingen dute. 19:00etan, berriz, koroatze ekitaldia egingen dute.</p>

Hitzaldiak

LESAKA

Umeen maitasun beharra hizpide**Urtarrilaren 30ean**

Carlos Gonzalez pediatra ezaguna 18:00etan Kultur Etxean.

BERA

Haziera konzienteaz solasean

Urtarrilaren 12an Miren Camisonekin Bera-landetan 18:00etan.

ANIZ

Euskal Nobela Beltzaren Astearen barne**Urtarrilaren 21ean**

Eneko Aizpuruarekin *Herensuge gorriaren urtea* liburuz, 19:00etan elkartean.

ELIZONDO

Euskal Nobela Beltzaren Astearen barne

Urtarrilaren 22an Mariano Izetaren *Dirua galgari* liburuaren berrargitarapenaren aurkezpena, 19:00etan Arizkunenean. Ondotik, Jon Abrilekin *Mariano Izeta, euskal nobela beltzaren abiapuntu* solasaldia.

Urtarrilaren 23an

Baztango kontu beltzak, Gaztetxean, 20:00etan.

Urtarrilaren 24an

Beltzetik beltzera nobelaz mahai ingurua Arizkunenean (11:00) Jon Alonso, Itxaro Borda eta Miel Anjel Eleustondorekin. 16:00etan Juan Kruz Igerabideren *Zangotraba* nobela eta Joseba Larratxe *Joseviskyren Requiem gabaren erdian* komikia aukeztuko dituzte.

Zine foruma eta hitzaldia

Urtarrilaren 29an *Bizi testamentua eta heriotz egokia* hizpide Manu Ezizola medikua eta

duintasunez hiltzeko elkarteko kidearekin, Arizkunenean (19:00).

LEITZA

Kale komunikazioaren inguruko prozesuaren baitan saioak

Urtarrilaren 9an, 16an eta 30ean 18:30ean udal batzar aretoan.

DONEZTEBE

Guraso Eskola

Urtarrilaren 19an *Nola egin gure umeek hutsak bere gain har ditzaten?* Carmen Nieto psikologoarekin.

Ipuin-kontariak

BERA

Haurrentzako ipuin kontalaria

Urtarrilaren 23an Isabel Millet 18:00etan Herri Liburutegian.

Tailerrak

BERA

VIII. Mendiaren Egunaren barne eskalada tailerra

Urtarrilaren 10ean eskalada tailerra 10:00etan hasita Altzate frontoian. Euriarekin kiroldegian.

PROPOSAMENA

BAZTAN

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatu dute Baztanen ilbeltzaren 21etik 25era. Tarte horretan, aurkezpenak, solasaldiak, mahai inguruak, bazkariak, ibilaldiak eta bertso trama antolatu dituzte, bertzeak bertze. Egitarauaren barne, Mariano Izetaren *Dirua galgari* liburuaren berrargitarapena aurreztuko dute. Idazle ezagunak ere Baztanen ibiliko dira.

**Bertsoak**

ERRATZU-ELIZONDO

Baztango Bertso Eskolak bortsu urte

Urtarrilaren 9an Beira Taldearekin bertso musikatuak Erratzuko Zubi Punta ostatuan.

Urtarrilaren 17an bertso afaria Agin Laburu, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegirekin, Erratzuko Etxebert elkartean.

Urtarrilaren 25ean bertso trama Odei Barroso, Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin Elizondoko Arizkunenean 19:00etan. Gai jartzailer Fernando Anbustegi izanen da.

Urtarrilaren 30ean

BERA
Bi Bala bertso musikatuak Elizondoko Intza Ostatuan.

Urtarrilaren 31n

bertso afaria Erratzun, Gizakunde egunaren barne.

Kontzertuak

ELIZONDO

Kherau folk akustikoa Euskal Herritik

Urtarrilaren 11n Arizkunenea Kultur Etxean 19:00etan.

BERA

Entzunaldiak**Musika Eskolan**

Urtarrilaren 14an bibolin entzunaldia 18:00etan.

Urtarrilaren 20an perkusio entzunaldia 18:00etan.

Urtarrilaren 21ean gitarra entzunaldia 18:00etan.

Urtarrilaren 27an haize-instrumentuen entzunaldia 18:00etan.

Urtarrilaren 28an txistu entzunaldia 18:00etan.

Bera Kantari**Urtarrilaren 31n**

Illekuetatik 19:00etan abiatuta.

Antzerkiak

IRURITA

Helduentzako antzerkia

Urtarrilaren 18an Atx Teatroaren eskutik, *Emeen sotoa eta arren ganbara* antzezlan, Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

ZUBIETA

Aresoko antzerki taldearen saioa

Urtarrilaren 17an arratsaldean.

Filmak

BERA

VIII. Mendiaren Egunaren barne

Urtarrilaren 10ean *La vuelta al mundo a pedales* (Munduari bira pedalen gainean) dokumentala, 19:30ean Kultur Etxean.

Ospakizunak

URDAZUBI

Fabaren Erregearen besta

Urtarrilaren 10ean pregoia, dantzariak, joaldunak, desfilea, koroatze ekitaldia...

ELIZONDO

San Anton Eguna

Urtarrilaren 17an. Tarte zahar etxearen aldeko zozketa.

ZUBIETA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 17an.

LESAKA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 18an Endara auzoan.

Mendia

BERA

VIII. Mendiaren Eguna

Urtarrilaren 10ean Santa Barbarara Igoera oinez eta bikoitekako kronoeskalada, 15:00etatik aitzinera.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Txoriak kolpeka

BERNARDO ATXAGA

Pamiela, 2014

Bi kontaeak eta saiakera labur batek osatzen dute Bernardo Atxagaren (Asteasu, Gipuzkoa, 1951) *Txoriak kolpeka* liburua. Lehendabizikoak, *Andoniren heriotza LSDaren argitan*, orain dela 800.000 urteko gizaki baten ezbeharrak hartzen du abiapuntu, eta heriotza du gai. Bigarrenak, *Pierrek dioena entzuten dut*, erlezain baten aitortza jasotzen du erleen munduko poesia bereganatuz; hirugarrenak, *Lawrence Arabiakoa*, Thomas Edward Lawrence militar ingelesaren irudia aztertzen du, eta haren ospe handiaren zergatia. Bere garaian Atxagak berak adierazi zuen, *Nevadako egunak* libururako «behar baino gehiago» idatzi zuela, eta «azkeneko lana kentzea izan zen, liburua ia erdira ekartzea». Bada orduan, kanpoan utzi zituen testuak liburu honetan jasoa daude. Bernardo Atxagaren prosa estimutan dutenei atsegingarri egingen zaie Familiaren Upaingoa sailean argitaratu duen liburu honen irakurketa.

Musika



Paila

XAIKO

Baga-Biga, 2014

Xaiko taldea 2014ko hasieran sortu da hainbat talde ezagunetako kideen artean, hala nola, Kaotiko, Obrint Pas, Stupenda Jones, Betagarri... Musikari trebatuak dira eta ideia izatearekin batera musika gauzatzea erraza egin zaie. 2014ko martxoan kaleratu zuten lehenbiziko diskoa, *Therapy* izenekoa. Baina Xaiko taldea ez zen geldirik egoteko jai. Eurek egiten duten musika bezalako da, mugimendu handikoa. Punka, rocka eta trikia nahastuta, zuzenekoak jai bilakatuko dituzte. *Therapy* diskoari eta taldeari berari bultzada emateko hiru abestiko *Paila* diskoa atera dute, baina lanak baditu ezaugarri bereziak. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo maitatu eta herrikoien hiru abesti ospetsuen bertsoak egin dituzte triki-punk-jai estilora ekarrita. Diskoan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen parte hartu dute abesten. *Unblenble* abestia da singlea eta *Beleko anderea* kantuarrekin bideoklipa egin dute.

Internet




Zuzentzaile ortografikoa online

WWW.XUXEN.EUS

Xuxen zuzentzaile ortografikoa online erabiltzeko aukera ematen duen webgunea da. Aitzineko bertsoari hainbat aldaketa eta hobekuntza egin dizkiote. Hala, Xuxen5 paratu dute erabiltzailearen eskura, EHUko IXA taldearen eta Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia unitatearen artean sortutako bertsoa. Erabiltzailearen hiztegia kudeatzeko aukera ere gehitu dute. Hiztegiaren sartutako hitzak ikus ditzake erabiltzaileak, eta hitzok gehitzeko eta kentzeko aukera du. Testu bat zuzentzean ere, erabiltzailearen hiztegia erabili ala ez aukera dezake. Testuak zuzentzeko, hainbat aukera berri sartu dituzte; hala nola, hitz hobetsiak proposatzeko aukera. Bertze adibide bat: testu-kutxan sartzen den testua entzuteko aukera ere badago. Baita Matxin itzultzaile automatikoa erabiltzeko aukera ere. Gainera, testu-kutxan sartutako testuaren hizkuntza detektatzen da zuzentzerako bidali baino lehen. Adibidez, gaztelaniazko testu bat sartzerakoan, itzultzaile automatikoaren bidez euskarara itzultzea nahi den galdetuko du.

Nire aukera



Ixaso IRIGOIEN
Lesakako gaztea

«Bi haurrak izan ondotik hasi nintzen lasterka eta gustura ibiltzen naiz»

Sorritik auzoko herrira bizitzera joan zen Ixaso, Lesakatik Bera. Dena den argi utzi du «nahiz eta Beran ongi tratatzen nauten, lesakarra beti da lesakar». Bere afizioen gainean galdetuta, kirola maite duela argi dago «korrika egitea, igeri egitea eta denbora gehiago izanez gero mendian ibiltzea ere gustuko dut» erran digu. Bi haurrak izan ondotik hasi nintzen lasterka eta «gustura» ibiltzen dela aipatu digu «taldean gelditzean gara eta giro politean ibiltzen gara». Asteburua iristean «mendian buelta bat eman eta gero familiarekin edozein plan antolatzekoan dugu ttikienek ere disfrutatu dezaten». Bidaiteza ere maite du eta bisitatu duen tokirik politena Japonia iruditu zaio, «toki zoragarria, garbia eta jendea oso atsegina da. Kontraste izugarriak dituen herrialdea da, hirriak oso aurreratuak eta herri ttikiak oso tradizionalak dira. Burutan dituen bidaien artean, New York edo irlaren batera gustura joan litzateke dio, eta noizbait hori lortzeko «osasuna eta lana eskatu» dizkio urte berriari.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONoz-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mogleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mogleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00etatik aurrera. ☎636 880115.

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomikoa. ☎646 774177.

SUNBILLA. Herri kaxkoxan eta leku zoragarrian etxe berria salgai. 100 m²ko 3 solairukoa. 5 logela, 3 bainugela, sukaldia, egongela-jangela, portxea eta etxe ondoko terrenoarekin. Bi garaje. 395.000 euro. ☎687 832844.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo www.ttipi.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LEITZA. Uharte Gotzaiaren pisua salgai. 90 m²koa, 2. solairuan, igogailuarekin; sukaldia, komuna, berogailua eta leihoak berriak. Balkobea eta leihoak kanpo aldera. ☎637 806044.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisu berria errentan emateko. Garajea eta trastelekuarekin. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. 450 euro. ☎600 418207 (Mertxe).

ARRAIOZ. Baserria errentan emateko edo saltzeko. ☎609 973306.

DONEZTEBE. Zazpigarutze karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde ederrak, eta ganbara. ☎648 518415.

DONEZTEBE. Etxebizitza errentan emateko. Toki onean, pisu ederra da eta mogleztatua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, despentsa eta trasteleku haundiarekin. Balkoi ederra du eta eguzkitua da. ☎697 846613.

BERA. Altxate karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukalde ekipatua, balkoia bista ederrekin. Deitu ikusteko eta solasteko. ☎686 488773.

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan pisua errentan emateko. 3 logela, mogleztatua eta berogailuarekin. ☎676 707620.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

BERA. Neska batek pisua konpartitzeko norbait nahi du. Ahal dela neska eta ahal bada

erretzailea ez dena. Arduratsua eta nik euskaraz ez jakitea axola ez zaiona. Pisua egoeira onean dago, auzo lasaia. ☎662 585965.

IRUÑEA. Buztintxuri auzoan logela argitsua eta polita errentan hartzeko neska bat behar da. Erretzailea ez dena. 235 euro gehi gastuak. ☎636 181546.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESACA. Eltzetako plazan lur azpiko garajea salgai. ☎646 774117.

DONEZTEBE. 133 m²ko bajera salgai. Leitzaiko errepidean, 66. zenbakia. Prezio interesgarria. Saltzeko premia. ☎948 456010.

LANA

eskariak

Gizonezko gazte sukaldian laguntzaile, zerbitzari edo fregaderan lanean ariko litzateke eskualdean. ☎651 744490.

Doneztebeko 25 urteko neska euskalduna dendetan dependienta, adineko pertsonak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, sukalde laguntzaile edo administratiba bezala lanean aritzeko prest Malerreka - Baztan aldean. Kotxe propioa. ☎649 901395.

SUNBILLA. Emakume euskalduna lan bila dabil. Haurrak zaintzen, etxeko lanak egiten, dendetan... ☎680 781632.

LANA

eskaintzak

IRUÑEA. Emakume euskalduna behar da etxeko lanetarako. Familia eta haurrekin. Hobe interna moduan. ☎610 542152.

Mendiko lanetan eta zuhaitzak botatzen esperientzia duen **mutila** behar da. Motozerrarekin lan egiten ongi daki. ☎658 015080.

ZERBITZUAK

denetarik

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abenduarien 5etik 12ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 35 € (=)

Zerri gizena
1,055 € kilo. (-0,035)

Zerramak:
0,470 € Kg/bizirik. (-0,050)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,22
1.koa 4,02
2.koa 3,84

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,32
1.koa 4,06
2.koa 3,89

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 160,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,90/8,50
8-10 kilokoak: 6,70/7,40

MOTORRAK

salgai

Toyota Land cruiser 3.0 salgai, D4D VXL, 5 atekoa. ☎650 409246.



Suzuki Bandit 600 N motorra salgai. 2001. urtekoa, Egoera oso onean. 1.900 euro. ☎626 684311.



ARESO. Gas gas markako quads-a salgai. 300eko motorra du, bi denborakoa. Gutxi erabilia eta egoera oso one-



an. ☎665 731414.

ANIMALIAK

salgai

Urte bateko **bi zerri gizen** salgai. Euskal txerri arrazakoak. Kapritxora haziak. ☎690 181644.



Behorra salgai, ttikia eta mantsoa. ☎687 950373.

Zazpi hilabetez ernari dagoen **behi suiza** salgai Leitzan. Adina: 5 ur-

te. Inseminazioa: limusina. Interesa duenak deitu. ☎948 510533.



ANIMALIAK

oparitzeko

Galgo arrazako bi zakur oparitzeko. ☎600 819913.

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



Egurrezko tximeneta salgai, Lakunza modeloa eta oso egoera onean dagoena. Prezio egoekitua. ☎667 518485.



DENETARIK

galdu-aurkituak

Garmin gps-a galdu dugu Malerrekan. Aurkitzen duena sarituko dugu. ☎665 752336.

BERA. Landagainta inguruan graduatutako beturreko progresibak galdu ditut azaroaren 29an. Norbaitek aurkitu baditu nirekin harremanetan jartzea eskertuko nuke. ☎622 737536.

Txokoto ostatuan **patinete** bat eta horrekin batera **giltza** batzuk agertu dira. ☎948 580351.

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

BAZTAN **ILBELTZAREN** 21-22-23-24 ETA 25

ILBELTZAREN 21 A ARTEAZKENA ANIZKO ELKARTEAN 19.00 ETAN
 IDAZLEEN SOLAZTEAN, ENEKO AIZPURUAREN NEBENKATE BOSTAREN KOTEA LIBURUARI BURUZ.

ILBELTZAREN 22 A ARIZUMENEA KULTUR ETREA, ELIZONDO 19.00 ETAN
 MARIANO IZETAREN **TIKIA SALGAIARI** LIBURUAREN BERRARGITARAPENAREN AURPEZPENA. ONDOTI SOLAZALDIA JON ABRIEN ESKUTI. MARIANO IZETA.EUSKAL NOBELA BELTZAREN ABIAPIUNTU

ILBELTZAREN 23 A ELIZONDOKO BAZTETxean 20.00 ETAN
 ORTZIZALA BAZTANGO KONTU BELTZAK.

ILBELTZAREN 24 A LARUNBATA ARIZUMENEA KULTUR ETREA, ELIZONDO 11.00 ETAN
 MAHAJ INGURUA. BELTZETIK BELTZERA NOBELAZ, ITXARO BORDA, JON ALONCO ETA MIEL ANJEL ELEKTRONDORREIN. BITARTEAN. EUSKAL NOBELA BELTZAREN ERATU LEIHOR.

JARRUGIARTE TABERNA IKURITA. 20.00 ETAN
 SUSMAGARRIEN GAUA -AFAGIA TARTEAN.

14.00 ETAN BAZTARIA ESKURARI JATETxean TRAKTELAK. ESKATZEKO ILBELTZARBAZTANEN@GMAIL.COM
 16.00 ETAN BERTAN KAFE AURPEZPENAZ. JUAN URUZ IGERABIDEREN **ERANTZAKA** NOBELA ETA JOCEBA LARRATXE JOCEBICIVREN **EROSIEN** BAZTAREN ERATU KOMITIA

ILBELTZAREN 25 A IGANDEA
 11.00 ETAN **TRONIKA** BELTZ BATEN IBIALDIA AMAIUTU PLAZATI ABIAUTU
 13.00 ETAN **BERTO** TRAMA, ODEI BARROCO, ALAJA MARTIN, MAIALEN LUJANBIO ETA UNAI ITURRIAGARRIEN. GAI JARTZAILEA FERNANDO ANBOSTEGI

INFORMAZIOA : ILBELTZA.BLOGSPOT.COM ANTOLATZAILEA:
 H ILBELTZA

LAGUNTZAILEAK : ELIZONDOKO BERTAN IKURITA, BERTAN ERATU ELIZONDOKO BAZTETxean

ttipi-ttapa

argia berria

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.eus bitartez



Aunitz urtez gure Almandozko birramonari, **NATIVIDAD SALABERRI**. Anton, Aimar, Mattin eta bereziki Ainararen partetik. Maite zaitugu amaxi xaharra.



Igantzik **JON ARANGUREN**ek 2 urte beteko ditu urtarriaren 14an. Muxu haundi-haundi bat bi amaxi eta gurasoen partetik.



Zorionak laukote! **TERESA, IRAITZ, GARAI** eta **MAREN**, egun politak igaro ditzazuela eta merendu goxo-goxoak prestatu. Aunitz urtez familiaren partetik!



BEÑAT IBARRA BERAUK urtea beteko du urtarriaren 16an. Aunitz urtez morroso! Eta muxu potolo bat ebeko tikieneri familia guziaren partetik!



BEÑAT IBARRA BERAUK arantzarrak urtea beteko du ibeltzaren 16an. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat Oier, Enea, Ainere, Alaitz, Ane, Ioritz, Intza, Aroa, Udane eta Elaiaren partetik.



Abenduaren 21ean eta 26an **NORA PALENZUELA INDOBURU** eta **LEIRE IRIBARREN INDOBURUK** 8 eta 12 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu handi bat Etxalarko familiaren partetik.




Berako **ANDONI GOIA FAGOAGAK** abenduaren 28an 9 urte bete ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



Oizko **ITXASO BARRIKART** Ziak azaroaren 25ean hiru urte bete ditu! Zorionak zure familiaren partetik, printzesa! Maite zaitugu!



Sunbillako **NAHIA BERTIZ BABAZEK** abenduaren 14an 5 urte bete ditu. Zorionak panpoxa Sunbillako eta Urrozko familiaren partetik eta batez ere attatto, amaxo eta Aimarren partetik. Muxu aunitz eta segi hola karakola!



Elko, Nevadako **MICHELLE IGOAK** 20 urte bete ditu abenduaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Arantzako **ANDER** eta **SAIOA ETXEGARAI MAIZEK** abenduaren 14 eta 26an urteak bete dituzte. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat familia guziaren partetik bikote maitagarri honi!



ENAIZ AGESTA PETIRENAK abenduaren 29an 2 urte bete ditu. Zorionak Berako ataxi eta familiaren partetik.



Donostian bizi den **LUR ALTZUGARAI FERNANDEZ** lesakarrak bere lehenbiziko urtea bete du abenduaren 27an. Muxu erraldoi aunitz gure printzesari familia guziaren partetik.



IÑAKI IRAZOKI beratarrek 61 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak Berako ...ren partetik.



Arantzako **ENAUT SAN JUAN TABERNAK** abenduaren 13an 10 urte bete zituen. Zorionak eta 3.650 muxu Arantza eta Berako familiaren partetik.



MADDI HOYOS EGUZKIAGIRRE lesakarrak urtarriaren 12an 6 urte! Zorionak matia! Ongi pasa eta muxu haundi bat etxekoaren partetik! Muxuak!!!



Amaxi **MARI JOXE K** urteak bete ditu. Aunitz urtez Orti, Lexuri, Elorri, Aiert, Mikel, Beñat eta Nahia biloben partetik. Muxuak!!!



Lesakako **ESTITXU AROZENAK** urteak bete ditu urtarriaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren eta bereziki Jare alabaren partetik. Muxu haundi bat amaxo!!!



Goizuetako **LOREA SALDIAS MAKAZAGAK** iada 5 urte bete ditu abenduaren 31n! Zorionak Iturengo atautxi-amaxi eta izebaren partetik. Muxu haundi bat!



MIKEL SAN SEBASTIAN GAZTELUMENDIK urteak beteko ditu urtarriaren 11n. Berritro matasuna adierazten urrun gaude-la, baina badakizu maite zaituztegu. Eutsi goiari, behar dugu eta. Besarkada beroa familia guziaren partetik! Euskal presoak eta iheslariak etxera!



Ongi etorri Aresora **TELMO!** Aurten aurreratu egin da Olentzero! Zorionak eta muxu haundi bana Ane, Txomin eta Eneari!



Goizuetako **LOREA SALDIAS MAKAZAGAK** 5 urte bete ditu abenduaren 31n. Muxu haundi bat familiaren partetik.



JAIONE GONI MITXELENA lesakarrak urteak bete ditu abenduaren 19an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat.



Sunbillako bi printzesita hauek urtarriaren 19an jada 6 urte beteko dituzte. Aunitz urtez familia guziaren partetik baina bereziki bere lehengusua Ibai eta nola ez attatto eta amattoren partez. Ongi ongi pasa zuen urtebetetze eguna. 6 mila muxu prexiokak.



Sunbillako **BITTORIK** urtarriaren 16an urteak beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik bereziki Iraide eta Garaine iloben partetik.



Zorionak Anizko **SAIOA ZAMBORAN ETULAINI** abenduaren 25ean 10 urte bete dituelako. Muxuak Anizko familiaren partetik.



Etxalarko **ANDER LARBURU ELIZALDEK** urtarriaren 21ean 5 urte beteko ditu! Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



Doneztebeko **AIMAR IRIARTE MIKELARENAK** urtarriaren 8an bere lehenengo urtea beteko du. Zorionak Sunbillako eta Arantzako familiaren partetik, eta bereziki atta, ama eta Nahia arrebaren partetik. Muxu haundi bat eta egun on bat pasatu potolo!

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

argazki soila **4** EURO

argazki bikoitza **8** EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zuri zorionak zuri zorionak zuri zorionak beti!!!

BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**
HORIAN SARTU BEHAR DITUZUN
ONTZI ARINAK

BAI

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olioak, ospina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko
ontziak, latak
eta brikak

Hutsak eta janari
hondarrik gabe
sartu behar dira
edukiontzian

ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...



BAZTANGO
UDALA

www.baztangoudala.eus




www.malerrekakomankomunitatea.com



www.bortziriazabor.com

BRIK ONTZIAK



Brik ontziak
(zukuak, esnea,
arrautza likidoa,
ardoa...)



ECOEMBES

www.ecoembes.com



ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
www.ttipi.eus

ZOZKETAK

628. ALEKO IRABAZLEA
EGUBERRIETAKO SARIA
Pili ITURBIDE | IGANTZI

1 KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com

2 LOTEA
Martiko
www.martiko.com

3 2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkar.com
Handia naiz | Doministripu jauna

elkar

4 3 LIBURU BEGIRA!
Ibaizabal
www.ibaizabal.com

ibaizabal

5 DVDA
Takolo, Pirritx eta Porrotx
www.irrienlagunak.com

6 CDa
Ornitorrinkus
www.ornitorrinkus.org

ornitorrinkus

DESKONTUAK

ZALAIN MOTOR

BERA | %5 errekanbioetan

edurne arropadenda
BERA
%5, 30€tik gorako gastuan

KATEA-BIKE
BERA | %5 konponketetan

Urdi Lesaka
LESAKA KIDUEKIA | SERVICIOS DEPORTIVOS Y RIEGLO ZERBITZUAK
LESAKA | Pertsona 1: %10 matrikulan 2 pertsona: 1. go pertsonak matrikula doan, 2. pertsonak hilabete bat doan. (abuztuak 31 arte)

MAIMUR
LEITZA
%10 oparitzeko artikuluetan

MENDIUR PENTSUAK
Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arocena Andueza
DONEZTEBE
%5 zakur eta katuen pentsuak